

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-07-13
EGUBAKOITZA
517. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

Epelen garbigunea egingo dute

Zabortegiaren zati bat zigilatuko dute | 4



Hondakin geldoak. | GOIENA

Mikel Urdangarin, Errekan Gora ekimenean, Eskoriatzan | 18

Aste bukaera indartsua Antzuolan, jaien bueltan | 19



Goikobalu Gazte, Europa Cantat jaialdira joateko gertu, Turinera | 25

Langilea hil zen atzo AHTren Arrasateko obretan | 4

Galtzen diren objektuen zerbitzua, Arrasaten

Galdutako objektuen erdia pasa bueltatu egiten dute | 10



Galdutako objektu batzuk. | U.M.

EDITORIAL BATERATUA EUSKARAZKO HEDABIDEEK

Erakundeei dei egin diete herri ekimeneko euskarazko komunikabideen aldeko apustu sendoa egin dezaten | 6

SINADURAK

Higgs | 6
MANU ARREGI

18 | Herri taupada, demasekoa!
NESTOR ARANA

Opor usaina giroan | 20
ROSA MONDRAGON

32 | Nirekin edo nire etsai
AINTZANE OIARBIDE

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 |
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 10 | KIROLA 22 |
KULTURA 25 | ZURE IRAGARKIAK 27 |
TELEBISTA-IRRATIA 28 | EZKONTZAK 28 |
ESKELAK 29 | NON-ZER 30



Esperientzia Mundiala!

Bartzelonan egiten dabiltzan munduko atletismo txapelketan Maialen Axpek ez zuen atzo amestutako saltoa egin, eta ez zen finalerara sailkatu. Arrasatekoak, baina, han bizi izandako esperientzia nabarmendu du. | 22

Maialen Axpe, pertika-saltoko finalerara sailkatzeko fasean atzo, eguena, Bartzelonan. | SERGIO CARMONA

Kalamu-erabiltzaileen elkarteak baikor dira etorriko den arauarekin

Legebiltzarrean batzorde berezia dago kontsumoaren araua lantzen | 2

Kalamuaren inguruko elkarteek arau ona espero dute

- ▶ Lege-hutsunea bete nahi du Eusko Jaurlaritzak
- ▶ Bailaran ere badaude kontsumitzaileen elkarteak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Kalamua (cannabis) landatzea, saltzea eta kontsumitzea legez kanpoko eta zigortua izan da urte askoan, eta oraindik ere, salbuespenekin, horrela da. Baina lege horiek 1974koak dira, eta, jendarte aldatzen joan den neurrian, lege haien inguruko debata egon izan da hainbat alditan. Orain ere bai, eta emaitzak izango ditu; hala espero dute, behintzat, Euskadin erregistratuta dauden kalamu-kontsumitzaileen 54 elkarteek -2009an, orain hiru urte bakarrik, 18 ziren; Europako datuen arabera, Europako kalamu kontsumitzaile gehien duten eskualdeetako bat da Euskadi. Debagoienean ere badaude halako elkarteak; aktiboetariko bat Bergarako Sustar elkarte da, 2006an sortutakoa.

Eusko Legebiltzarrean dago orain eztabaida. Hain zuzen, Euskadiko kalamu-erabiltzaileen elkarten federazioak (Eusfac) egindako proposamena jarraituta eta Legebiltzarreko talde politiko guztien adostasunarekin, kalamuaren inguruan dagoen hutsune juridikoa betetzeko lana hasi da. Horretan dihardu propio sortutako batzordeak.

Osasun sailburuordeak, Jesus Maria Fernandezek, martxoan

DATUA

54

ELKARTE

EAEn, 54 kontsumitzaile-elkarte daude erregistratuta. Bergarako Sustar elkarteak 200 kide inguru ditu.

ESANAK

"Askotarik egiten dugu: prebentzio lana, adibidez"

KAIET LASKURAIN
SUSTAR ELKARTEA

azaldu zuen Eusko Jaurlaritzak kalamuaren landaketa, salmenta eta kontsumoa arautu nahi duela, eta Mendekotasunen Lege berri batekin egin nahi duela hori, aurrean edo datorren urtean, seguruenik. Eusko Jaurlaritzak soilik

arlu horiek arautu ditzake; ezin du kalamua legezatu, hori ez dagoelako bere eskumenen artean. Arartekoa, Iñigo Lamarka, elkarten alde agertu da, esanez elkarteok erregularizatzea eta babestea izan beharko litzatekeela helburua, horrela kontsumitzaileak merkatu beltzetik baztertzeko eta zigoretatik babesteko.

Kriminalizazioa

Izan ere, egun, legea ez dago kalamua kontsumitzen duenaren alde: Goñiren hitzetan, "kriminalizatu" egiten ditu kontsumitzaileak. Baina legeak baditu salbuespenak, eta haiei esker irauin dezakete kontsumitzaileen elkarteak eta federazioak.

Zigor Kodean, 1974a ezker, norberak etxean droga hartzea ez da delitua; baina norberak droga hori erostea edo eskuratzea, kalean eroatea edo saltzea ez da legala, legeak ulertzen baitu hori dena trafikatzera bideratuta dagoela. Salbuespena hau da: norberak beretako landatzen duenean eta etxean berak kontsumitzen duenean. Euskadiko elkarten federazioko idazkaria eta Urjoga Berdea kontsumitzaileen elkarte presidentea, Urki Goñik dioenez, lege horrek "kontsumitzaileak merkatu beltzera bultzatzen ditu";

izan ere, "norberak kontsumitu dezake, baina ezin dezake erosi: horrek ez du zentzurik".

Goñi baikorra da: "Gu, elkarrekin gaudenok, ez gara kriminalak eta ez gabilta trafikatzeko, ezta inori osasuna hondatzen ere. Gizarteak onartu du gauzak aldatu direla, eta jendeak dioena erakutsi behar du legeak".

60 gramo hilero

Elkarteak antolatuta dauden moduan, norbanakoak beretako landatzeko oinarri hori taldeko lanera eroan dute. Elkarte bakoitzak lur-eremu bat errentan hartzen du, eta batzarrean erabakitzen dute bazkideek baten esku uztea landaketa. Oso garrantzitsua da justu kontsumitu behar dutena ekoizteko adina landatzea; ez gutxiago, ez gehiago. Bazkide bakoitzak eskubidea du landaketa komun horretatik aurrez zehaztu duen adinakoa hartzeko. "Elkarrekin gastronomikoen oso antzekoak gara", esaten du Goñik.

Elkarrekin gastronomikoen egiteko duden desberdintasun nagusia da honakoek darabilten lehengaiak: kalamua. Horregatik, kontrol zorrotza egiten dute kantitateen gainean. Urki Goñik honela azaltzen du: "Muga batzuk daude. Guk ezarri dugun muga da pertsonako eta eguneko 2 gramo. Hilean, gehienez, 60 gramo kontsumitu dezakete gure bazkideek; hortik gora, gure ustez, kontsumo arazo larria dago, eta bazkide horrekin hizketaldia izango genuke". Ez da hori kontrol modu

bakarra: "Datorren astean federazioko abokatua eta langile bat landaketa guztietara joango dira, eta elkarte bakoitzaren aurreikuspenarekin bat datorrela begiratu dute. Peritu agronomo bat ere ekartzen dugu hori egiaztatzeko".

Horrez gain, elkarteak EAEn elkarten erregistroan daude, eta helburuak, jarduerak... dena zehaztuta daukate han. Beste edozein elkarten moduan funtzionatzen dute: demokratikoak dira, erabakiak batzarrean hartzen



Belar-ukendu medizinala egiten, Sustar elkarteak. | LEIRE KORTABARRIA

ZURE NEGOZIOARAKO MUGIMENDU PERFEKTUA
ESZEPTIKOAK, ONGI ETORRI

NISSAN NV400
FURGOIA 2.3i 100 ZP
15.300 €*-tik hasita



ESPAÑIAN FABRIKATUA
NISSAN NV200
KOMBI 1.5 dCi 90 ZP
10.500 €*-tik hasita




Nissan. Innovation that excites.

NISSAN GAURSA

Otaola etorbidea, 22
20600 Eibar (Gipuzkoa) - Tel. 943 82 09 74
www.gaurcars.com

*FAP gomendatua honentzat: Nissan NV400 Furgioia L1H1 2.3i 100 ZP (74 kW) Oinarrikoa eta honentzat: Nissan NV200 1.5 dCi Kombi oinarrikoa 90 ZP (66 kW) penintsulan eta balearretan (BEZa, garraioa eta Nissan Assistance kanpo. Sustapen-kanpaina barne). Eroslearen izenean dagoen okasioko ibilgailua berriz erositako kanal pribatuaren egindako salmentetarako. Beste salmenta-kanal edo baldintza batzuetarako joan Nissan kontzesionariara. Eskaintza 2012/07/31ra arte egongo da indarrean. Ikusten den modeloa NV200: Kombi Oinarrikoa haguekin.

Gama: Kontsumo mistoa: 5,3-9,4 l/100 km. CO₂ emisioak: 138-249 g/km.



Cannabis sativa edo kalamu landarearen hostoa. | GOIENA

Ondorioak, argi eta garbi

Ai laket! elkartearekin, prebentzio kanpaina egiten dabil Bergarako Sustar elkarte; izan ere, informazioa ematea da elkartearen helburuetako bat. Kalamuaren eta beste substantzia batzuen gaineko esku-orriak har daitezke han. Besteak beste, ondorioak epe motzean eta luzean zehazten ditu; alde onak —euforia eta lasaitasuna sortu eta antsietatea txikitzen ditu— eta txarrak —erabilera kronikoak hormonak murriztu eta arnas-gaixotasunak sor ditzake— argitzen ditu.

dituzte, urte bukaeran balantzea onartzen dute...

Oraindik ere, arriskuan

Horrela, legea betetzen duen modu baten kontsumitu dezakete kalamua elkarte horietako bazkideek. Baina babes handiagoa eskatzen dute, eta horregatik nahi dute euren egoera legezatztea; izan ere, oraindik isunak, atxiloketak, epaiketak... jasaten dituzte zenbaitean. Urki Goñik esaten duenez, erraz konpondu daiteke arazo hori, izan ere, "gaur egun ez dago

legeak aldatzeko beharrik; ez Europako legeak, ez hemen daukagun Kode Penalaren ere. Behar dena da eragile politikoek, legetariak eta gizarteak kode zibila gehiago garatzea eta gaur egungo errealitateari gerturatzea".

Medikuarekin batera

Bergarako Sustar elkarte 2006an sortu zen eta, gaur egun, ia 200 bazkide ditu. Bazkide izateko gutxieneko adina 21 urte da, eta adin guztietariko kideak daude. Orain urte eta erdi, lokala lortu

zuten eta hantxe batzartzen dira. Sustarreko kide Kaiet Laskurainek azaltzen duenez, federazioko elkarte guztiek antzera funtzionatzen dute eta askotariko ekintzak egiten dituzte. Euren jarduerako adar garrantzitsuenetako bat da kalamua osasun arrazoiengatik behar dutenei arreta. Horretarako, beti medikuaren baimenarekin eta haren laguntzarekin egiten dute lan. Kimioterapia hartzen dabilzanak, insomnioa dutenak, artritisa dutenak... askotariko arazoekin lagundu izan dute.

URKI GOÑI | EUSKADIKO FEDERAZIOKO IDAZKARIA

"Elkarteok osasuna babesten dugu"

Euskadiko kalamu-kontsumitzaileen elkartearen federazioko kidea da Urki Goñi. Bere esanetan, euren proposamenak erabiltzaileen osasuna babesten du.

Zenbat elkarte zarete?

54 elkarte daude erregistratuta. Pare batek ez dute jarduerarik. Beste batzuk epaitegian daude, euren egoitza sozialak itxita. Eta beste 38 bat elkarte normal funtzionatzen dabilta. Hortik, gaur egun, 14 gaude federatuta, eta beste 22 tramitean daude.

Zer du onik elkarteon proposamenak?

Merkatu beltzeko arazo guztiak kentzen ditugu; kontsumitzaileak, lehenengo aldiz, demokratikoki har ditzake erabaki batzuk —ze substantzia hartzen diren, ze ekoizpen-prozesu dagoen eta non eta nola kontsumitu dezakeen. Horrez aparte, beste modu batera merkatu beltzera joango zitezkeen diru hori zergatara, langileei ordaintzeko eta klubak helburuak lortzeko erabiltzen da. Osasuna babesten duen programa da gurea; izan ere, substantziak hor daude, eta haiek modu seguruan hartzeko lekua behar da. Leku horietan informazioa eman behar da, eta kontsumitzailea ez dago krimina-



Urki Goñi. | LEIRE KORTABARRIA

lizatuta. Hori da, adibidez, heroina hartzeko gelen kasua.

Jendeak kalamuaren gaineko nahikoa informazio du?

Ez, beste interes batzuk daudelako. Gaur egun oraindik onkologikotik jendea paper barik bidaltzen digute, mesedez laguntzeko eskatuz. Azken 10 urteetan jendea benetan antolatuta da, mediku espezializatuekin lan egiten dugu... Ezin dute justifikatu zergatik azken

"Substantziak modu seguruan hartzeko lekua behar dira"

70 urteetan ez dioten jendeari behar zuena eman. Botiken agentziak botiken %25 kendu egiten ditu, efektu txarrak dituztelako; marihuanarekin ez dago horrelakorik. Elkarteak egiten gabiltza tokatzen ez zaigun lan bat, osasun arduradunek egin beharko luketena.

Lanerako gertu!

2012
2013

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Matrikula zabalik

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
-Portatil bat zure esku
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
 943 71 21 91

Epeleko zabortegiaren zati bat zigilatu egingo dute, eta gelaxka berria sortu

Horrekin batera, garbigune berria ere eraikiko du han Mankomunitateak

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Epeleko hondakin ez arriskutsuen zabortegian zenbait lan egingo ditu Debagoieneko Mankomunitateak. Hain zuzen ere, zabortegiaren zati bat zigilatuzko lanak egingo dituzte, hondakinak batzeko gelaxka berri bat sortu eta, horrez gain, garbigune berria ere egingo dute.

Bergarako lurretan dagoen zabortegi horretan, industrian eta eraikuntzan sortutako hondakinak jasotzen dira, LER edo Hondakin-en Europako Zerrendan, hondakin arriskutsutzat katalogatu gabeak, eta Mankomunitateak jarritako onarpen frogak gainditzen dituztenak –erkidegoko 49/2009ko dekretuan oinarrituta.

Zabortegi horrek Debagoieneko Mankomunitateko eskualdeko eremuan sortutako hondakinak ematen die zerbitzu, eta, beste batzuen artean, honelako hondakinak batzen dituzte: adreiluak, teilak, hormigoia, zementua, lur garbiak, haitzak, harri xehea, galdaketako hondarrak eta burdin-urtzetik sortutako hondakinak...

Tasetatik finantzatu dira

Hondakinak hara errotan dituzten enpresek ordaindu egiten dute zabortegia erabiltzeagatik; hain justu, eramaten duten hondakin motaren arabera 5,81 eta 39,68 euro artean ordaintzen dute tonako, 2012ko tasen arabera.

Hain justu, Mankomunitateak zabortegian egingo dituen lanok, aurreko urteetan kobratutako tasa horiek eratutako fondotik ordainduko direla aurreratu dute Ingurumen sailetik. Batez beste, urtean 100 bat enpresek erabiltzen dute zabortegi hori gaur egun.

Arautegia zorrotzen joan da

1992 eta 1993. urte bitartean eraiki zuten Epeleko hondakin ez arriskutsuen zabortegia, eta 1993an hasi zen martxan. 9,5 hektarea inguruko lursaila okupatuko du erabat betetzen denean eta 1.800.000 metro kubiko inguruko kapazitatea dauka.



Zabortegia Epelen gora dago, Kanpanzarreko bidean. Goian, airetik hartutako irudia. | DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA

Hondakinak kontrolpean desegiteko egoki prestatutako instalazioa da. Hala ere, urteekin legedia aldatzen eta zorrotzen joan da, batik bat, Europako Batasuneko Ingurumen legediak ezarritako –1481/2001eko errege dekretua– baldintzak betetzeko.

Hala, Epeleko zabortegiak arautegi berria betetzeko egin beharreko egokitzapenak jasotzen zituen txostena egin zuen Mankomunitateak Eusko Jaurlaritzak ematen duen Ingurumen Baimen Integratua eskuratzeko. 2008ko maiatzaren 5ean eman zion eta orain egingo dituzten lanak hori aintzat hartuz egingo dira.

Obrak laster hasiko dira

Bidein enpresak egin du lanok gauzatzeko proiektua eta atzo,

eguna, ziren lanok esleitzekoak. Hori horrela, Mankomunitateko arduradunek azaldu dute obrak berehala hasiko direla. Era berean, azpimarratu dute eguraldiren oso menpe egongo direla lanok, euriak baldintzatu egingo dituela, nahiz eta urtebeteko epean bukatzea aurreikusita dagoen.

Alde batetik, egungo zabortegiaren aurrealdea, 47.844 metro koadro, zigilatu egingo dituzte, gune hori iragazgaituz. Bestetik, iragazgaitza izango den 15.121 metro karratuko zaborra batzeko gelaxka berri bat sortuko dute. Hain justu ere, hori da lehentasuna; hortik abiatuko dituzte lanak eta urri edo azaroan dagoeneko hondakinak bertan botatzea espero dute.

Gelaxka horren ondoan, beste lau gelaxka –bi altueratan–

eraikitzeo lekua geratuko da eta Bidein enpresak egindako proiektuak lau gelaxka horiek eraikitzeo xehetasunak jasotzen dituen arren, ez dira orain egingo, beharren arabera eraikitzen joango dira.

Proiektuaren hirugarren ardatza 10 konpartimentu izango dituen 1.500 metro karratuko garbigunea eraikitzea da. Hor batuko dituzte, besteak beste, linea zuriko etxetresna elektrikoak (garbigailuak, hozkailuak...) eta linea gris-marroiko etxetresna elektrikoak (telebistak, ordenagailuak...).

Lan guztiak bukatzeko urtebeteko epea dagoela aurreratu dute Mankomunitateko Ingurumen Sailetik, eta lizitazio aurrekontua hiru milioi eta erditik gorakoa da, BEZa barne.

Krisiak zabor kopuruan ere izan du eragina

Bizi dugun krisi ekonomikoak bizitzako arlo gehienetan izan du eragina eta Epeleko zabortegian ere nabaritu dituzte ondorioak. Bailerako industria eta eraikuntza enpresek sortutako hondakin geldoak jasotzen dituzte han, eta azken urteetan nabarmen egin du behera bertara iristen den hondakin kopuruak, Mankomunitateko ordezkariak azaldu dutenez.

Azkeneko bost urteetako datuei erreparatu gero, 2007an 215.458 tona hondakin batu ziren. 2011n, berriz, 69.833 tona. Bestalde, 2007an 67 sarrera zenbatu zituzten eguneko; eta iaz, 32.

2007ko datuak eskuan, Mankomunitateko Ingurumen Sailak aurreikusten zuen 2013rako Epeleko zabortegia beteta egongo zela; 2011ko datuekin, berriz, 2020-22ra atzeratu da data.

Behargin bat hil egin da, AHTren obretan, Gesalibarren

UBANE MADERA | ARRASATE

Abiadura Handiko Trenaren Gesalibar (Arrasate) auzoko obretan langile bat hil egin zen atzo, eguna.

Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, hormigoizko pieza bat erori zitzaion gainera, dobela ize-nekoa. 15:45ean gertatu zen istripua.

Hasieran helikopteroa bidali behar zuten, behargina zaurituta zegoelakoan. Baina hilda zegoela jakin zutenean, bertan behera utzi zuten.

Albiste hau idazterakoan oraindik hildako langilearen gorpua lekutik jaso barik zegoen eta haren familia abiatu barik.

Hori egiteko zain zeuden Herrizaingo Saileko ordezkariak, hildakoaren gaineko datu gehiago emateko.

Debagoieneko I. Txakolin Eguna domekan Antzuolan

I.G./M.B. | ANTZUOLA

Debagoieneko XI. Jardunaldi Gastronomikoen barruan, Debagoieneko I. Txakolin Eguna egingo dute domekan Antzuolako plazan, 12:00etan. Arrasateko Kataide eta Otxia eta Oñatiko Upaingo txakolinak dastatzeko aukera egongo da –euro baten truke–; hirurak ere Debagoieneko ekoiztutakoak dira eta Getariako Txakolinaren jatorri izena dute. Felix Etxagibel Otxia txakolin ekoizleak haxe esan zuen aurkezpen ekitaldian: "Ezezagunak bagara ere, duela 25 urte hasi ginen lehen mahatsa sartzan. Eta hasieran mehatxu asko jasan behar izan genituen arren, lortu dugu txakolina egitea. Jende askok ez daki hemen txakolina egiten denik, itsasaldeko erreferentzia bakarrik dugu".

Txakolinari laguntzeko Giokelako saiheski pintxoak ere banatuko dituzte, euro baten truke. Antzuolako Anelkar GKEK prestatuko ditu eta batutako dirua Kongon eta Senegalera bideratu dute. Debagoieneko artzainek egindako Idiazabal gazta erosi eta dastatzeko aukera ere egongo da. Eta, horrez gainera, Idiazabal jatorri izenaren eskutik gazta dastatzea egingo du Idiazabal gaztaren dastatze talde ofizialeko kideetako batek.



SAN JUAN DE DIOS OSPITALE PSIKIATRIKOA

PSIKIATRIAKO, FAMILIA-TERAPIAKO ETA TERAPIA PSIKOLOGIKOKO KANPO-KONTSULTAK

HITZORDUAK



943 79 39 00

PSE 68/97

Gesalibar Auzoa 14
20500 - ARRASATE

www.hsjd.es
mondragon.admision@hsjd.es

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko
Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA
XII. Saiakera saria


antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gai buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko:
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren
industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte

Tel.: 948 32 65 35
soltxate@pamiela.com
Arauk: www.pamiela.com



2012

Biztanleko 250 litro ur gastatzen dugu egunean debagoiendarrok

Kontsumoa asko jaitsi da; Urkulu sortu zenean 460 litro aurreikusi zituzten

M.A./M.B. | ARRASATE

Nondik eta nola dator gure etxetara iristen den ur edangarria? Nola bihurtzen da edangarri? Eta isurtzen ditugun ur zikinak, non eta nola garbitzen dira errekarra isuri aurretik? Prozesu horiek eta burutzen diren tokiak bertatik bertara ezagutu zituzten astelehenean bailarako zinegotzik eta teknikariek. Urkuluko presan hasi zuten bisita; handik Urkuluko tratamendu plantara egin zuten eta Epeleko araztegiaren bukatu zuten bisita.

Agintaldi bakoitzean egiten ditu Gipuzkoako Ur Kontsorzioak ur hornidurarako eta ur arazketarako dituzten instalazioak ikusteko bisita gidatuak. Helburua da, tokian tokiko udal ordezkariak, leku eta prozedurak erakustea.

Ur Kontsorzioko Ustiapen Zuzendari Joxe Saizarrek eman zituen azalpenak eta harekin

batera Kontsorzioko gerente Iñigo Elozegi ere izan zen: "Jendea ez da konturatzen gure etxetako iturrietatik datorren ur garbiaren atzean zer nolako prozesu eta azpiegiturak dauden; gainera, orain, Epeleko araztegiari esker, isurtzen ditugun ur zikinak ere garbitu egiten dira", esan zuen.

Kontsumo ohiturak behera

Ur kontsumoari dagokionean, nabarmen egin du behera azken urteetan. Urkuluko urtegia egin zenean, 1980ko hamarkadan, aurreikusten zen biztanleko, egunean, 460 litro ur beharko zirela. Gaur egun, kopuru hori asko jaitsi da; batez beste, 250 litrorara, hain zuzen ere. Horretan zeresana izan dute kontsumo kultura berriek, udalek euren hodian mantenuan egiten dituzten lanek -fuga gutxiago dute orain- eta krisiaren eraginez, industriak

ere kontsumoa jaitsi izanak. Eta kontsumo joerak beherantz jarraitzen du, Joxe Saizarren esanetan.

Urkuluk 10 milioi metro kubikoko edukiera totala du. Hain justu, Debagoieneko zazpi herritan -Aramaio eta Leintz Gatzaga izan ezik- 5.600.000 metro kubiko banatzen dira urtean eta beste 1.100.000 metro kubiko, Eibarren, Saizarrek azaldu zuenez.

Epeleko araztegia urrirako

Epeleko araztegia martxan dago, baina sistema ez dago guztiz egon-



Bailarako udal ordezkariak asteleheneko bisitan. | MIREN ARREGI

kortuta. Alegia, sartzen den ur zikina garbitu egiten du araztegiak, baina, proba fasean dago oraindik. Urrirako espero dute, errendimendu osoz lanean hastea eta orduan "amuarraian eta tankerako arrainak bizi izateko ur aproposa botako dugu errekarara", esan zuen Saizarrek. Eskoriatza,

Aretxabaleta, Arrasate eta Oñatiko urak hartuko ditu. 80.000 lagunendako kalkulaturako dago, nahiz eta egun 43.000 biztanleren ur zikinak eta industriakoak araztuko dituen. Hala, "oraindik marjina" duela esan zuen Saizarrek. Araztegia 33 milioi euro inguru kostatu da.



MAIALEN REGUEIRO

Aldarrikapenak bizikleta gainean

LAB sindikatuak antolatuta, bizikleta martxa egin zuten atzo zenbait lagunek: "Gaur egun bizi dugun murrizketa egoerari erantzuna emateko eta langileen eskubideak aldarrikatzeko". Debagoiena eta Debabarrena zeharkatu zituzten. Arrasatsaldean manifestazioa egin zuten Eibarren.

Debagoieneko Mankomunitateak 1.195 konpostagailu banatu ditu

M.B. | ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak etxean konposta egiteko antolatutako kanpainak erantzun ona izan du. Bi hilabete iraun du eta Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Elgetan eta Oñatin egin dituzte konpostatzea zertan dantzan azaltzeko ikastaroak, eta 198 konpostagailu banatu dituzte.

Gurean egiten den seigarren ikastaroa izan da. 2005ean egin zen lehenengoa, eta, 2009ra bitartean, urtero egin da. Sei edizioetan, guztira, 1.195 konpostagailu banatu dituzte: Antzuolan, 180 banatu dituzte; Aretxabaletan, 94; Arrasaten,

250; Bergaran, 196; Elgetan, 45; Eskoriatzan, 122; Leintz Gatzagan, 18; eta Oñatin, 290. Mankomunitatetik aurreratu dutenez, kanpaina bukatu bada ere, interesa dutenek izena eman dezakete eta gutxieneko taldea sortzen denean ikastaroa antolatu dute. Izena eman daiteke 943 79 33 99 zenbakian.

Auzo-konposta ere bai

Ortu edo lorategirik ez duten herritarrek auzo-konposta ere egin dezakete; alegia, auzokoen artean egindakoa. Horretarako, udaletxera jo baino ez dute, eta konposta egiteko gunea presta diezaieten eskatu.



TOYOTA | EuskoAuto

AUKERA IBILGAILU BERRIAK 15 UNITATE ERABILGARRI

<h3>TOYOTA AURIS</h3> <p>AURIS 90D Active [2012] DIESELA</p>  <p>DESKONTU BEREZIA %21</p> <p>PSP: 18.950€ DTUA: -3.951 € 14.999€</p>	<h3>TOYOTA AURIS</h3> <p>AURIS 130 1.6 Active [2012] GASOLINA</p>  <p>DESKONTU BEREZIA %26</p> <p>PSP: 18.950€ DTUA: -4.951 € 13.999€</p>
--	--



Euskoauto Prever Plana barne. Matrikulazio gastuak ez daude barne.

KONTSULTA ITZAZU EUSKOAUTOREN PREVER PLANAREN BALDINTZAK

TOYOTA EUSKOAUTOREKIN AUTOA FINANTZATUZ GERO, 5 URTEKO GARANTIA DOAN

EuskoAuto

www.euskoauto.toyota.es

<p>BERGARA Olabarrena, z/g Tel: 943 762 385</p>	<p>ELGOIBAR Olaso industrialdea Olaso kalea 23 - Tel: 943 747 417</p>	<p>PASAIA ANTZO San Markos errepidea 32 Tel: 902 345 245</p>	<p>OLABERRIA Karobi industrialdea Tel: 943 805 926</p>
--	--	---	---

ZABALIK



MANU ARREGI
http://goiena.net/iritzia/

Higgs

A lferrik zabilta Higgs-en partikula famatua ulertzen saiatzen bazara. Ez duzu partikula hori inoiz ulertuko. Horrelako gauzak ulertzea gutxi batzuen esku dago. Behar-beharrezkoa da, horretarako, fisika modernoa sakonki lantzea. Eta bere ekuazio madarikatuekin borroka egitea. Baina tira, lasai egon. Grabitatea zer den ere ez duzu ulertu eta lasai asko bizi izan zara orain arte. Edo ulertzen duzula uste duzu? Ziur? Nola erakartzen du Lurra? Zer gertatzen da bi gorputz horien artean? Zer da, berez, indarra? Berdin aurkitzen gara Higgs-en partikularen kasuan. Zer egiten duen jakin ahal dugu. Zergatik eta nola ulertzea beste historia bat da. Higgs-ek masa ematen die partikulei. Segun eta nola elkar eragiten duen partikula bakoitzak Higgs-en eremuarekin, masa bat edo beste du.

Fisika modernoa gizakiaren adimenaren garaipen izugarria da. Higgs-en partikula da horren adibide. Unibertsoa azaltzeko zenbait teoria sortzen joan dira fisikariak. Teoria onartuenaren ondorio bezala proposatu zuen Peter Higgs-ek bere partikula. Eta orain, 50 urte geroago, aurkitu egin da.

Eta zer pintatzen du Jainkoak honetan guztian? Ezer ez. Jainkoaren partikula deitu diote Higgs-i komunikabideetan behin eta berriz. Ridikulua. Laurogeita hamarrek hamarkadan L. Lederman fisikariak partikulen fisikari buruzko dibulgazio liburu bat idatzi zuen. Higgs-en partikulari *the goddamn particle* esaten zion *partikula madarikatua*. Editoreak beste buelta bat eman eta *The God particle* titulatu zuen liburua *Jainko partikula*, euskaraz; *La partícula Dios*, gaztelaniaz. Itzulpen txar bat egin zuen norbaitek eta *La partícula de Dios* *Jainkoaren partikula* titularekin argitaratu zen hemen liburua.

Maltzurkeria bat amaitzeko. Batzuek dioten bezala, Higgs-en partikula Jainkoaren partikula izango litzateke... existituko ez balitz.

"Fisika modernoa gizakiaren adimenaren garaipen izugarri da"

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



EDITORIALA

Eider Carton (Elhuyar), Mikel Irizar (Tokikom), Joanmari Larrarte (Berria Taldea) eta Xabier Letona (Argia), herri ekimeneko euskal hedabideen izenean

Euskarazko hedabideek erakundearen konpromisoa behar dute

E usko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak %11 murriztu du herri ekimeneko euskal hedabideentzako diru-laguntzen partida. Batean Jaurlaritza, bestetan Aldundiak, bestetan udalek, apurka-apurka baina etengabe ari zaizkigu iristen murrizketak, diskurtso publikoan izaera estrategikoa aitortzen bazaigu ere.

Estrategikoa, bai, oinarritzko funtzioa betetzen dugulako euskararen normalizazio eta garapenean. 450.000 lagunengana iristen garelako. 600 lanpostu baino gehiagoren ardura dugulako. 27 milioi euro inguruko jardura ekonomikoa eragiten dugulako.

Garai latzak dira guztiontzat, ondotxo dakigu hori. Inoiz baino ahalegin handiagoak egiten ari gara euskal hedabideok garai berri horietara egokitze: diru iturri berriak bilatzeko, gure enpresa egiturak sendotuz, eta ditugun baliabideak optimizatzeko, elkarlanerako formula berriak garatuz. Ez gara kikildu krisiaren aurrean, eta soberan ez ditugun indarrak inbertitzen ari gara gauzak hobeto egiteko. Lan horren ondorioz, herri ekimeneko euskal hedabideek martxoan aurkeztu genuen sektorearen diagnostikoa eta erronka komunak biltzen dituen dokumentua.

Inbertitzeko garaia

Herri ekimeneko euskarazko hedabideok hausnarketa mahai bateratua sortzeko eskaera egiteaz gain, eskaera zehatzak ere jarri ditugu erakundearen mahai gainean: diru-laguntza politika aldatu eta hitzarmen ereduaz ezar dezatela, sektorean inbertsioak eta garapena susta ditzatela eta publikitate instituzionalaren banaketan hizkuntz irizpideek pisu handiagoa izan dezatela.

Horren berri eman diegu erakundeeri (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia, besteak beste), eta

kasu guztietan sektoreak egindako bidea txalotu eta elkarlanerako prest agertu dira.

Baina praktika bestelakoa da: orain ezagutu dugun murrizketak ez digu garapen bide horietan sakontzen laguntzen eta, are txarrago, gutako batzuen biziraupena bera kolokan jartzen du. Tokiko hedabideen kasuan, murrizketak %40tik gorakoak ere izatera iritsi dira.

Esan bezala, badakigu garai zailak direla guztiontzat. Baina benetan estrategikotzat jotzen diren beste sektoreetan bezalaxe, honetan ere erakundeek dirua inbertitu behar dute. Euskal hedabideok garai berrietara egokitu eta sektorea berregituratzeko egin beharreko inbertsio handiak ezin dira urtez urteko diru-laguntzen menpe egon (ez dugu jakiten zenbat eta noiz jasoko dugun). Etorkizuna bermatuko duten inbertsioak egin ahal izateko, laguntzak hitzarmen bidez jasotzea ezinbestekoa da.

Elkarlanerako deia

Horregatik, elkarlanerako deia luzatu nahi diegu berriz ere Eusko Jaurlaritzari, eta gainontzeko erakundeeri. Denon ahotan dabilen krisi ekonomikoa ezin da aitzakia izan ezinean dabilen herri ekimeneko euskal hedabideen sektorea hiltzen uzteko.

Herri ekimeneko euskal hedabideok beharrean jarraituko dugu, egoera berrietara egokitu eta kalitatezko euskarazko

informazioa eskaintzeko. Erakundeeri dei egin nahi diegu gure sektorearen aldeko apustu sendoa egin dezaten behingoz. Badakigu denbora latzak datozkigula, baina horregatik, uste dugu inoiz baino beharrezkoa dela orain arte egin eta konpartitu ez dugun gogoeta estrategikoa egitea, guztion artean erabaki dezagun nolako sektorea behar dugun, behin hau egin da beharrezko baliabideekin horni dezagun.

"Inbertsioak egiteko, laguntzak hitzarmen bidez jasotzea ezinbestekoa da"

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailtetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa


EEGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lego Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Biba! Bibra...
Eskobibrazioak

Marisol Andrade
Eskoriatza

Ekainaren 29an, San Pedro jaietan.

22:30ean, Eskoriatzako enparantza jendez beteta.

Lurraren soinuak; ezpainenetik, eskuetatik, bularretatik zein pausoetatik emateko sarrera.

Ikuskizun paregabea, liluragarria, emozioz beteta.

Lehenengo batukada hark balio izan zuen bigarrenari, zeruko ahotsei, bidea zabaltzeko.

Barneko emozioak agertzeko zorian, ibilbidean.

Biek elkarrekin abiatuta lortu zuten ezberdintasunaren aisialdiak orekatzea, dena pozaldiz beteta.

Perfekzioa heldu zen gure txistulariak agertu zirenean.

Zelako sentipena huraxe!

Itsuak izanda berdin zen; herriko taupadak ozenki entzuten ziren eta errainetaraino heldu ziren, indarrez beteta.

Desio bakarra hauxe: ezin diogu urteari joatea laga, berriro entzun barik, geure herritik sortuta izana:

Eskobibrazioak; galantak, xarmantak, hunkigarriak, aintzagarriak, geureaz beteta.

Horixe zen Eskoriatzako Herri Taupadak, eta hauxe nire txaloea eurentzat, adeitasunez aseta.

"Debagoiengan
berdin da, atez
ate sistemarekin
edo gabe"

Juan Karlos Garitano, Maria Ubarretxena, Ibon Arrupe eta Juan Ramon Mendieta

(EAJ-PNVren Arrasateko Udal Taldea)
Arrasate

Mankomunitateko buru eta Arrasateko alkate den Inazio Azkarraga-Urizarrek publikoki kaleratu dituen datuen arabera, selektiboki jasotzen den beira, paper, kartoi eta ontzien kopurua berdina da atez ateko sistemaren inplantazioaren aurretik eta ondoren.

Adibide bezala Antzuola ipini du.

Izan ere, herri horretan atez aterekin eta edukiontziaz konparaketa egin da, hauek dira ondorioak datuei buruz:

-Selektiboki jasotzen den beira kopurua: 33 kilo biztanleko.

-Kartoi, paper eta ontzi kopurua: 60 kilo biztanleko.

Organikoari dagokionez, ezin izan da konparaziorik egin.

Izan ere, bosgarren edukiontzia inplantaziorik ez, ez dago daturik.

"Prebenzioa hondakinen produkzioa murrizteko sensibilizazio programarekin eta irtenbideak jarri,

zaborraren sorrera saihesteko". Hau izan da mezua, eta ados gaude.

Erakusketa mobil honekin, hasiera eman da Oñatiko emparantzan.

Baina horretarako ez da beharrezkoa atez ate promozionatzeko kanpaina bat martxan ipintzea, are gehiago erabaki hori datuek babesten ez dutenean.

Horregatik, mesedez eskatzen dugu demagogia gutxiago eta konfiantza eta laguntza gehiago momentuan daukagun sistema aurrera ateratzeko.

Izan ere, azkeneko 5 urteetan Mankomunitatean agintzen egon arren, ez duzue ezertxo ere egin egungo sistema hobetzeko: ematen du nahita boikoteatu dela.

Bilduk gehiago absolutua daukan herrietan atez atekoaren inplantazioa aprobata du, eta orain, aprobazio horren ostean, sensibilizazio kanpainak datozela ematen du?

Hau zer da, beste *paripé* bat?

Uribe auzoa ez da
arrasate?

Aritz Elexpuru
Arrasate

Duela pare bat hilabete Arrasate osoan dauden errepideko zulo guztiak estaltzen ibili ziren.

Baina Iker biribiletik Garagartzara doan bide zatia ez dute ukitu, eta zulo asko dago; gainera, autoen zarata asko dakar.

Kexua eman nuen udaletxean, eta Jaurlaritzaren errepide zati bat dela esan zidaten, eta Jaurlaritzara hainbat aldiz deitu ondoren ez didate erantzuten (ez dakit lan egiten duten...).

Ondo egongo litzateke errepide zati hau konpontzea.

Eskerrik asko,
guztioi, Txosna
batzordearen
partetik!

Josu Zugasti
(Txosna batzordearen izenean)
Arrasate

Ohartxo honen bitartez, Arrasateko herritar guztiak zoriondu nahi ditugu, jai hauetako giro ezin hobegatik eta ekimen askotan edukitako parte-hartze nabarmenagatik.

Zaila izango da hurrengo urteetan gaintzea, nahiz eta ahaleginduko garen!

Horrez gain, Txosna batzordeak eta bertan parte hartzen duten herriko talde guztiek, jakina, bereziki eskertu nahi lukete antolatutako jarduera guztietan boluntario lanean ibili diren neska-mutil eta gizon-emakume guztien

bultzada eta ekarpena: txosnetan, herri bazkarian...

Bejondeizuela!
Zuei esker, herrigintzako hamaika alorretan jarduten duten herriko taldeek dirua edukiko dute aurrera egiteko.

Gainera, guztion artean jai herrikoi eta parte-hartzaileak egin ahal izan ditugu, non kontsumismo hutsa gaintuta, bakoitzak bere aletxoak jartzen duen.

Beste barik, espero dugu datozen urteetan ere herriko jaietako antolakuntzan eta ospakuntzan gero eta jende gehiago murgiltzea.

Ordura arte ere ederto ibili zaitezela!

Aupa zuek!

Ai... Athleticen
'zoroa'

Mikel Aranzabal
Eibar

Zuri-gorrien erreinuan ere ez da giro! Eztanda egin du Troiako zaldiak.

Bielsa-Urrutia bikoteak ez du luze iraungo, eta argentinarra segituan jarriko dute kolokan, emaitzek ez badiote laguntzen. Ez dute askorik behar izango horretarako, desiratzen egongo dira.

Iazko denboraldia uste baino azkarrago ahaztu zaie lehoiei, eta urak nahasi doaz Bilbo aldean; gabarra irauli ote da honezkerok?

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!

UDAKO ARGAZKIEN VIII. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu
zure udako argazkiak

Bidali zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: goiena.net/blogak/argazkiak

Baita hemen ere: [udakoargazkiak](https://www.facebook.com/udakoargazkiak) [udakoargazkiak](https://www.instagram.com/udakoargazkiak)



Har ezazu parte!

Oinarriak*

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.
- Argazkiarekin batera adierazi behar dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 2tik irailaren 14ra (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otarora Lizentziaduna 31, Arrasate. ARETXABALETA: Basabe poligonoa E05, Aretxabaleta.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.

- Irabazleak nortzuk diren urriaren 1ean jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela:
 - Twitter bidez, [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, eta argazkiaren deskribapena eginda.
 - Facebook bidez, [facebook.com/UdakoArgazkiak](https://www.facebook.com/UdakoArgazkiak) orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrean eta Facebooken aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kaliterik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

* Oinarri guztiak: tiki.com/40738

Sariak

1. saria: Canon EOS 1100 D reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergaroko KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.
 - 12 megapixel / HD bideo-grabazioa
 - 2,7 hazbeteko pantaila
 - AF fokatzeko sistema, 9 puntukoa
 - ISO 100-6400 sentibilitatea
 - EF eta EF-S objektibo guztiekien bateragarria.



2. saria: Cantabriari bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaiek-en eskutik.
3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- Herritarren saria: bi pertsonendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Debako AISIA hotelean.
- Boto emalentez saria: Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

KB
photoestudio
www.kbphotoestudio.com
Canon

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

aisia HOTELES

karibu
munduko zapareak
karibumundukosapareak.com

Maria Eugenia Arrizabalaga | Gipuzko Buru Batzarreko bozeramailea

"Inolako gobernuri ez zaio ametitzen Parlamentuaren gaineratik gobernatzea"

- ▶ EAJko legebiltzarkidea kritikoa da Gipuzkoako Foru Gobernuaren jarrerarekin
- ▶ Arrizabalagak dio Bilduk ez duela hitza bete, eta EAJk ez dituela aurrekontuak babestuko

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Gipuzkoako EAJren organo gore-naren, GBBren, bozeramailea da; legebiltzarkidea Gasteizen eta zinegotzia Antzuolan. Hurrengo Legebiltzarrerako hauteskunderako zerrendetan hirugarren doa Gipuzkoatik. Hauteskunderaz eta Lopezen gobernuaz bai, baina Alduntzin Ingurumen diputatuaren kontrako zentsura mozioaz eta Bilduren jarreraz dihardu.

Juan Karlos Antzuntzin Ingurumen diputatuaren kontrako zentsura-mozioaren helburua Bilduren jarra-aldatzea dela diozue. Lortuko duzue?

Inflexio puntu bat izatea nahiko genuke, eta Bilduren gobernuak hausnarketa sakona egin dezala. Oro har, kultura demokratiko eskasa erakutsi du. Ez da EAJ-rekin adostutakoa bete ez duela; ez da guk nahiko genukeena ez duela egiten, askoz ere sakonagoa da: Diputazioko gobernuak erantzun behar die Batzar Nagusiei, eta ez du hori egin, hain justu ere, ez duelako nahikoa gehiengo.

Esatzen diozuen moduan, Garitanok jarrera aldatuko duela uste duzue?

Bilduren Foru Gobernuak, nahiz eta hauteskundeetan boto asko lortu eta gobernatzeko legitimitate osoa eduki, ez dauka erabateko gehiengorik eta horrek behartzen du akordioetara heltzera. EAJren hasierako hautua izan da Bilduren aurkako inolako frontierik ez osatzea, eta uste dugu Garitano hori baliatzen ari dela. Izan ere, ez Garitano eta ezta Izagirre ere, ez lirateke boterera helduko dioten fronte hori egongo balitz. Biktimismoa egiten ari dira.

Aurrerantzean ere ez duzue osatuko Garitanoren aurkako alternati-barik?

Ez daukagu Garitanoren aurka-ko zentsura-moziorik aurkezteko asmorik. Baina Garitanok jakin behar du jarrera aldatu beharko duela eta edozein politika aurrera atera nahi badu besteekin adostu beharko duela. Inolako gobernuri ez zaio ametitzen Parlamentuaren gaineratik gobernatzea.

EAJrekin adostasunera heldu zen...

Kontu guztiekin ez du berdind jokatu. Batzar Nagusietan hainbat ekimen bultzatu dira eta era bateko zein besteak akordioak lortu dira. EAJk eta Bilduk, gutxienez, 20 ekimenetan akordioetara heldu dira. PPrekin eta PSE-EErekin ere lortu du. Baina,

bereziki, hiri hondakinen kontuetan, edo tinko jarraitu nahi duen horietan, ez du hurbiltze proposamenik egin, errealitateari uko eginez. Egin nahi duena egiteko nahikoa boto ez ditu eta bada Foru arau bat behartzen dutena Foru Aldundia ez ezik, baita Partzuergoa, mankomunitateak, udalak... herritar guztiak. Bete beharreko lege bat da, indarrean dagoena, eta aldatu nahi badu, adostu egin beharko du Batzar Nagusietan. Hori da Bilduk egin ez duena eta bere plan berria aurrekoaren garapen gisa saldu nahi izan digu.

Aurrekontuak onartzen lagundu zenioten Bilduri abenduan. Damututa?

Batetik, argi dago hitza ez duela bete. Zentsura-mozioa aurkezteko asmoa genuela aurreratu genuenean, korrika eta presaka hasi ziren plan bat aurkezten. Aurkezpen publikoak-eta egiten. Foru Gobernuaren hitzak balio gutxi du. Guk zintzo jokatu genuen. Alderdiak erabaki estrategikoa hartu zuen, egoera ekonomiko zail honetan, erakundetako aurrekontuak onartzen laguntzeko. Gipuzkoan ere hala egin genuen. EAJk hitza bete du; beste aldeak ez.

Datorren urteko aurrekontuei begira?

Ez dugu uste Bilduri babesa emango diogunik, ikusitakoak ikusita.

Gipuzkoako Hiri Hondakinen Partzuergoan eta udal gehienetan Bilduk agintzen du eta udal gehienek atez atekoa ezarriko dute eta errauste plantarik ez dutela nahi diote...

Atez atekoa bilketa sistema da. Udalek dute eskumena nahi duten bilketa sistema erabiltzeko. Hori ez doa foru arauaren aurka. Bestelakoa da alkate bakoitzak baloratu beharko lukeela, nahiz eta erabateko gehiengoa izan, beren herritarren borondatearen aurka egin edo ez, kontuan izanda zenbat sinadura batu diren herrietan atez atekoaren aurka. Bilduk dio eskumen kontrajarriak daudela. Baina ez nago ados. Foru araua Batzar Nagusiek onartutakoa da eta eragiten die, lege horrek, gipuzkoar guztiei.

Gipuzkoako 50 alkate agertu dira errauste plantaren aurka...

Gipuzkoan sortzen den hiri hondakinen erdia baino gehiago ez da sortzen Bilduk erabateko gehiengoa duen udaletan. Soluzioa ez da atez atekoa.

Beste kontu bat; legebiltzarkidea zaitugu Gasteizen. Bukatu da legeal-



Arrizabalaga, Arrasaten, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

"Ez dugu uste Bilduri babesa emango diogunik, ikusitakoak ikusita"

"Urkullurekin ere irabaziko dugu; itunak egin beharko ditugu, hala ere"

"Raxoiren kontrako jarrerei etekinak atera nahian dabil Lopez"

dia; Lopezen aurten deituko ditu hauteskundeak?

Lopezek behin eta berriro gogorarazi nahi digu berea dela hauteskundeak deitzeko eskumena. Dena dela, uste dugu aurtengo gutxitan daukalako PSOEak aginterik. Eta PPK aste-oro inori gustatzen ez zaizkion neurriak hartzen dituenek, bada, horiei aurre egiten dabil Lopez. Raxoiren kontrako jarrerekin etekinak atera nahian dabil.

Baina helduko zaio aurrekontuak onartzeko unea. EAJk babestuko ditu Lopezen aurrekontuak?

Nekez aurkeztuko du Lopezek aurrekontu proiekturik. Batetik, asti laburra duelako; bestetik, murrizketen aurka azaldu bai, baina zeuk ere egitera behartuta bazaude, aurreko urtean baino diru gutxiago jaso dutelako foru ogasunek, bada, kontraesanetan erortzeko zorian egon zaitezke. Datorren urteko aurrekontu proiektuak aurtengoek baino 1.000 milioi euro gutxiago izango ditu. Hori ikaragarria da. EAJ prest legokeen? Arduratsu jokatu genuke, baina orain arte ehunka proposamen aurkeztu diegu aurrekontuei, eta ez dituzte aintzat hartu.

Ibarretxekin irabazi zenituzten hauteskundeak. Urkullurekin ere bai?

Ziur nago baietz. Itunak egin beharko ditugu, hala ere.

Zeinekin?

Lehenengo, hauteskundeak irabazi beharko ditugu eta, ondoren, egokiena izango litzateke gutxiengoan gobernatzea, aldiko-aldiko batekin eta bestearekin adostasunetara helduz, proiektuak aurrera ateratzeko.

Zeinekin daukazu harreman hobea Gasteizen, sozialistekin ala popularekin?

Denekin antzeko samarrekoa. Egia da, halere, bereziki, Ibarretxeren garaipena aintzat hartu ez zutenetik, sozialistekin nahiko harreman txarrak izan ditugula azkenaldian.


Zeri emango diozue lehentasuna, arlo ekonomikoari ala identitario edo politikari?

Batek ez du bestea ukatzen. Zenbat eta burujabeago, zenbat eta gehiago sentitu herri bateko kide, hobe erantzungo diegu ekonomian dauzkagun arazoei. Bestalde, normalizazio politikoa eta bakegintza ere oso garrantzitsuak dira aurrera egiteko.

Azken komunikatuan EAJri kritikak egiten dizkio ETak, Aiete kikonferentzian adostutakorik aldentzea eta abar.

Asmo elektoralista hutsetik egin-dako adierazpena da ETaren azkena. Beti bezala, etsai bat nahi du eta beti eduki izan du EAJ etsai moduan. Bestetik, ETA ez da eragile politikoa. Ez diogu hori aitortu behar. ETak aldebakarreko erabakia hartu zuen behin betiko armak utziz. Hortaz, aldiko-aldiko gandorra ateratzen ibili beharrik ez du. Urratsak eman beharko ditugu eta EAJ ari da, beti bezala, nahiz eta diskrezioz, eragile hainbati laguntzen, bakea behin betiko egonkor dadin.





SIRIMIRI

JATETXEA

Inaugurazioa
Asteazkenean, uztailaren 18an
19:00etatik 21:00etara

Kintadak

Bataioak

Jaunartzeak

Menu bereziak taldeentzak

Lunch bereziak

Plater konbinatuak

BARRA

Errazioak

Ogitartekoak

Pintxo desberdinak

● Barrenkale 3 ●
Bergara 20570 (Gipuzkoa)

943 765 919

HERRIAK

ARRASATE

Galdutako objektuak guztiz galtzen ez direnean

- ▶ 2006an abiarazi zuten galdutako objektuen zerbitzua, BAZen
- ▶ Baliozko objektuak bi urtean gordetzen dituzte, kutxa gotorrean

UBANE MADERAK | ARRASATE

Arrasateko Biztanleen Arreta Zerbitzuko (BAZ) itxaron-gunean atentzioa ematen du erdi-erdian dagoen bitrina batek: giltza mor-doa, jantziak, betaurrekoak, poltsak... ditu barruan gordeta.

Eta herritar askok egiten dio begiratu kristalezko armairuari. Izan ere, horixe da justu, berorren funtzioa: Arrasaten aurkitzen diren gauzak erakutsi, jendeak kontsulta eta hala dagokionean, berreskura ditzan.

Urte erdian gordeta

Sei hilabetez egoten dira ikusgai. Epe hori pasatuta, jaberik agertzen ez bada, "destinoa" ematen diete objektuei, Edurne Muxikak, BAZeko arduradunak jakinarazi duenez: "Arroparen kasuan, edukiontzi zurietara bideratzen dugu. Betaurrekoak eramaten ditugu betaurreko dendetara, hirugarren mundurako izan daitezten. Giltzak birziklatu egiten ditugu. Telefonoak telefonia dendetara eramaten ditugu, birzikla dezaten. Medikamentuak botiketara... kasuan kasu jokatzen dugu".

Objektu baliotsuak, bi urtean

Ez dute baina prozedura jarraitzen objektu baliotsuekin: "Ez ditugu jendaurrean jartzen. Kutxa gotorrean gordetzen ditugu, bi urtez. Epe horretan jabea agertzen ez bada, aurkitu duenari ematen diogu. Gehienak urrezko bitxiak izaten dira. Argazkiak ateratzen dizkiegu, eta ustezko jabea agertzen bada, deskribatu egin behar izaten du, jakiteko bera dela benetako jabea".



Emakumea objektu galduen armairua begira, galdutako betaurreko bila. | U.M.

Eta jabeak erreklamatzeko ez dituen kasuetan, berriz, aurkitu duenari ematen dizkiote baliozko objektuak, bi urtean ostean.

Benetako jabeen egiaztapena
Muxikak azpimarratu du, baliozko objektuen jabeen egiaztapena ez ezik, gainontzekoena ere egiten dutela, jakina: " Adibidez, telefonoei, pina edo kargadoreak

ekartzeko eskatzen diogu eta horrekin egiaztatu behar du berea dela telefonoa Argazki kamerak direnean, bertako argazkiak deskribatu behar ditu. Eta dokumentazioa denean, Arrasatekoa bada gu jartzen gara harremanetan, eta bestela dagokion udalerriko udaltzaingora bidaltzen dugu".

Zer galtzen dugu?

BAZeko bitrinako izarrak giltzak dira. Horiexek galtzen ditugu gehien. Betaurrekoak ere sarri samar agertzen dira, eta baita arropa eta diru-zorroak ere.

Baina jakina, ezohikoak ere agertzen dira tarteka-tarteka: "Sei urteotan, adibidez, ordezko hortzak, mediku baten maletatxo, auskultatzeko erabiltzen den aparailuarekin; maleta bat arropa eta guzti; bitxiz betetako maletatxo bat... ekarri dituzte. Azken horren kasuan segituan azaldu zen jabea".

Bueltatu, erdia baino gehiago

Eta objektu arruntagoen kasuan ere erdia baino gehiago bueltatzen dituztela kontatu du Muxikak. Batzuetan CSI lana egin behar izaten dute hori lortzeko: "Sonoteneren bat agertu izan da, eta kasu horretan, adibidez, GAESekin harremanetan jarri gara, aparailuaren erreferentziaren bidez jabea lokalizatzeko, baliotsua dela kontuan hartuta".

Baina gehienetan, jendea bertara joaten da. "Gero eta gehiago bueltatzen dugula nabaritzen dugu, jendeak bidea ikasi duela. Eta bistan egoteak ere asko laguntzen du", dio Muxikak.



ARGAZKILARIAXXX

EDURNE MUXIKA
BAZ-EKO ARDURADUNA

"Objektu gehien Maritxu Kajoi egunaren ostean agertzen da"

Edurne Muxikak dauka galdutako objektuen zerrenda, eta bera arduratzen da zerbitzu horrekin.

Zein da galdutako objektuen zerbitzuaren funtzionamendua?

Galdutako zerbait jasotzean erregistratu egiten dugu: zenbakia jarri, noiz eta nork aurkitu duen apuntatu... eta behin erregistratuta, armairuan sartu eta jendaurrean bistan egoten da sei hilabetean. Epe hori pasatuta jaberik ez bada agertzen, destinoa ematen diogu objektuari. Baliozko gauzak direnean, berriz, ez ditugu jendaurrean jartzen. Kutxa gotorrean gordetzen ditugu eta bi urtean egoten dira hemen. Epe horretan jabea agertzen ez bada, aurkitu duenari ematen diogu.

Badaude galdutako gauzak agertzen diren leku "oparogorik"?

Umeak dabilizan lekuak.

Eta datarik?

Nabarmen handitzen da herriko jaien ondorengo egunetan: Maritxu Kajoi, Santamas... Kontuan izanda, gainera, egun horietan lapurretak ugaritzen direla, dokumentu solteak agertzen dira asko... Gehien gehien Maritxu Kajoi egunean galtzen da.

DATUA

240

OBJEKTU

Urte erdian 240 objektu aurkitu dituzte; egunean, batez beste, bi.

IZENADUBA BASOA PARKERAKO SARRERAK DOAN

IZENADUBA BASOA, Euskal Herriko lehen parke mitologikora joateko bazkide bakoitzeko bi sarrera oparitzen ditugu.

IZENADUBA BASOA
MUNGIA

Landetxo Goikoa MUNGIA
94 674 00 61
www.izenaduba.com



Sarrerak lortzeko

Telefonoz*: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
Mezu bidez:
Bidali KLUBA IZENADUBA
[Bazkidearen zenbakia]
zenbaki hauetara:
SMS** bidez 215800
WhatsApp bidez 688 69 00 02.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



goienakluba 2012

Tel.: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
goienakluba.com
Urteko kuota: 50 €.

* Irailaren 30era arte erabiltzeko aldi irizpidearen (abuztuaren 15etik). ** Uztailaren 20ra arte jasoko dira deialdiak. *** SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatuetan sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



70 bat lagun elkartu ziren, Udal Azokan, Gureztatu ekimenaren lehen faseko ondorioen berri jasotzeko. | JOKIN BEREZIARTUA

Oinarri sendoa duela erakutsita, azoka berria forma hartzeko gertu

Idea eta ekarpenen ostean, irailean "proiektu fasean" sartuko da ekimena

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Herri erronka potoloa". Horrela definitu dute Gureztatu, Arrasateko azoka birpentsatu eta biziberritzea helburu duen ekimena. Herriarena izatea gura dute, Udala eta Bagara dinamizatzaile nagusiak izan arren, herriko eragileak izango direlako azoka berriaren bideragarritasunaren bermea. Bestetik, erronka potoloa dela ez dago zalantzarik, azken urteotan gainbehera nabarmena izan duen azokari buelta ematea

ez delako lan erraza izango. Egitasmoak duen neurriaren adierazle da, esaterako, orain arte prozesuan parte hartu duten 400 herritarrek eta 50 eragileak. Kopuruok adierazten dute, sustatzaileen arabera, azokak "kezka eta interesa" piztu duela.

Ondorioak lantaldeka

Gaiak interesa piztu duela argi geratu zen eguaztenean Udal Azokan bertan. Lehen fasea amaitutzat emateko bateratze saioa egin

DATUA

400

HERRITAR

Era batera edo bestera 400 bat herritar eta 50 eragiletik gora izan dira parte hartu dutenak. Azokak "kezka eta interesa" piztu duen adierazle da, euren ustez.

ESANAK

"Parte-hartze faseak erakutsi du goga eta indarra daudela"

IRAIZ AGIRRE
BAGARA HERRI EKIMENA

zuten eta 70 bat lagun bertaratu ziren. Prozesuan modu aktiboan parte hartu dutenez gain, base-eritarrak, zenbait zinegotzi -Bildu eta EAJkoak tartean- eta zenbait herritar izan ziren.

Lantaldeek ondorioak eta proposamenak aurkeztu zituzten, banan-banan: lehen sektorea eta elikadura, kontsumo arduratsua eta produktu eraldatuak, herrigintzako plaza eta jolasgunea. Ondorioak ondorio, Iraitz Agirre Bagarako kide eta azokaren dinamizatzailea oso baikorra da: "Parte-hartze faseak erakutsi du azoka biziberritzeko indarra eta gogoia daudela; oso pozik gaude".

Irailean, "proiektu fasean"

Irailean talde eragileak hartuko du lekukoa: finantzazioa -ez dute nahi Udalak bere gain hartzea kostu osoa-, antolaketa eta proposamen arkitektonikoak diseinatuko dituzte, besteak beste, betiere orain arteko ekarpenak aintzat hartuta. Lanerako gogotsu daude: "Lan eskerga dugu; beraz, segi dezagun Gureztatzen!".

Domekara arte batuko ditu sinadurak Arrasate Garbik

J.B. | ARRASATE

Domeka honetan amaituko da Arrasate Garbi plataformak abiatutako sinadura bilketa. Eskuorri gehiagoren eskean "jasotako dei kantitate handia dela eta", Arrasate Garbik gogora ekarri gura du "birziklapenaren eta bosgarren edukiontzia alde baina atez atekoaren kontra" dauden arrasatearrek hilaren 15era arte dutela sinadura emateko. Honako helbidean sina daiteke: arrasategarbi@gmail.com. Internet bidez ere zuzenean eman daiteke sinadura: <http://bit.ly/NbeCHX>. Telefono zenbaki bat ere jarri dute: 688 88 68 87.

Notario-akta udaletxera

Ezin oraindik datu zehatzik eman, baina "oso inpresio ona" dute orain arteko arrasatearren erantzunarekin: "Oso pozik gaude", diote. Datorren astean notarioarengana joango dira sinadura kopuru zehatza notario-akta baten jasota uzteko. Akta hori eramango dute udaletxera; horrela, sinadurak modu anonimoan erregistratuta geratuko dira.

www.citroen.es

f t y

CITROËN C4 AIRCROSS

CITROËNek nahiago du TOTAL

CITROËN C4 AIRCROSS 18.800 €-TIK AURRERA*

Citroën C4 Aircross autoaren exijentzia maila eta abenturarako daukazu gogoia bat datoz. Herri erdialdera osteratxo egin nahi baduzu, aurrera. Herri erdialdetik ihes egin nahi baduzu, hortxe aukera. Eta egunen baten zeruertzen mugak ezagutu nahi badituzu, aurrean jartzen zaizun guztia zeharkatuz, hori ere egin dezakezu. Bi gurpil eragile izatetik laura pasatzeak edo, are gehiago, Lock modura pasatzeak aukera ematen dizu gidatzeko modu berri bat eta norabide berri bat probatzeko egunero.



Kaptura ezazu bidi hori eta goza ezazu spotaz primizian.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE



KONTSUMO MISTOA (l/100 km) / CO2 IGORPENA (g/km): CITROËN C4 AIRCROSS: 4,6 - 5,9/119-147

* Prezio gomendatua Citroën C4 Aircross 1.6i Stop&Start 2WD Attraction autoarentzat (zergak, garraioa, eskaintza eta Renove plana barne). Banque PSA Finance bidez gutxienezko 6.000 euroko kapitala eta 36 hilabeteko finantzaketa egiten duten bezero partikularrendako, trukean beste auto bat utzita (3 hilabetez autoaren jabea izanda) eta garrantia komertzialaren bi urteko luzapena kontratatzen dutenentzat (EssentialDrive 2+2 u 80.000 km kontratua, aurretik gertatzen dena), hilabetea amaitu arte, parte hartzen duten salmenta puntuetan. Ikusten den modeloa: Citroën C4 Aircross Hdi 150 6v Stop&Start 4WD Exclusive, ekipamendu aukerarekin. Eskaintza ez da bateragarria. www.citroen.es webgunean baldintzak kontsultatu.

Etor zaitetz ikustera: Debagoieneko CITROËN Kontzesionario Ofiziala: TALLERES CHAPIME, S.C.L., San Andres 5, 20500 ARRASATE. Tel.: 943 79 45 22

565 ume Arizmendi Ikastolako udalekuetan

Eguaztenean hasi ziren aste bat iraungo duten Haur Hezkuntzako udaleku irekiak

MAIALEN REGUEIRO | ARRASATE
Arizmendi Ikastolak bere ikasle guztientzat antolatzen ditu udalekuak, baina eskaintzen dituen udalekuak bi adin tartetan banatzen dira: alde batetik, Haur Hezkuntzako udaleku irekiak; eta bestetik, 5 urtetik hasi eta Batxilergoko ikasleetaraino mugatzen direnak.

Azken horietan aurten 565 umek eman dute izena, eta guztiak ikastolako ikasleak dira. Eta, hain zuzen ere, adinaren arabera eskaintza desberdinak ditu Arizmendi Ikastolak.

Udaleku ibiltariak

Udaleku horiek 5 urtetik hasi eta Batxilergoko ikasleetaraino

mugatzen dira eta aurten 365 umek eman dute izena. Adinaren arabera, leku ezberdinetara joaten dira ikasleak. Gazteenek, esate baterako, alegia, 5-9 urtekoek, lau txanda dituzte, eta Garesera joaten dira. 10-11 urteko ikasleek Acedora egiten dute bidaia. Lehen Hezkuntzako zaharrenek, berriz, Atsegirara.

Azken horretan egon da Gari Ibartzabal. Uztailaren 2tik 9ra egon direla azaldu digu eta zazpi egun egun horietan denetarik egin dutela aitortu digu.

DBHko lehen hiru mailetakoa ikasleak, ostera, Zuriza alderantz joaten dira, eta, azkenik, DBHko

4. mailako eta Batxilergoko ikasleak, Covadongara.

Azken horren kasuan, astelehenean irten ziren Covadongarantz (Asturias). Guztira, 35 lagunek eman zuten izena. Horien artean, 28 ikasleak dira eta gaitzakoak, begiraleak. 350 kilometro egingo dituzte bizikletan, eta parte-hartzaileak gogotsu zeuden irten aurretik.

Haur Hezkuntzako udalekuak

Udaleku horiek Arizmendi Ikastolako txikienei zuzenduta daude. Izan ere, nahiz eta umek klaseak amaitu, ikastola horrek umezaintza delakoa eskaintzen du uztailean zehar. Umezaintza

hiru astean erabil daitekeen zerbitzua da eta hiru aste horietako baten udaleku irekiak antolatzen dituzte.

Eguaztenean hasi ziren udaleku irekiak eta aste bat iraungo dutela adierazi du Ibartzabalek. Udaleku horiek 10etan hasiten dira, nahiz eta arduradunak 09:30erako bertan dauden, eta 12:00etan amaitzen dira.

Zazpi egun horietako bi orduetan, ekintza ezberdinak egiten dituzte udaleku horretan dauden umek. Egun batean, esate baterako, Uraren Eguna egiten dute, eta umek oso ondo pasatzen dute, Ibartzabalek azaldu duenez. Jolasak... ere egiten dituzte.



Covadongara joan diren ikasleak, irten aurretik. | ARRIZMENDI IKASTOLA

Jupiter Jon taldearen kontzertua ikusteko aukera gaztetxean

M.R. | ARRASATE
Jupiter Jon talde irundarrak kontzertua eskainiko du bihar gauean gaztetxean. Kontzertua 22:30ean hasiko da, eta herritar guztiak daude gonbidatuta hitzordu horretara, talde horren kantuez goza dezaten.

Kontzertu horretan, gainera, talde irundarrak Bidehuts pla-

taformaren bidez kaleratutako *Pleistozenoko astelehenak* diskoa aurkeztuko du.

Jupiter Jon

Taldea eskarmentu handiko musikariek osatzen dute. Aurretik, Gabon Caligula, Lisabo, Akauzazte eta beste talde batzuekin lan egin dute. Pop-rocka

egiten dute modu aske eta primitiboan.

'Pleistozenoko astelehenak'

Diskoa Karlos Osinagak grabatu zuen, 2011ko udan, Tolosako Bonberenean. Osinaga bera Jupiter Jonekin ibili da produktzio lanetan.

Hain zuzen ere, taldea lau lagunek osatzen dute: Aida Torres, Baxi Ubeda, Joxe Caballero eta Nerea Garridok. Horrez gain, hainbat lagun kolaborazioa izan dute diskoa egiteko orduan.

'H,O2topoz' antzerkia bihar Biteri plazan, Iñaki Matarekin

M.R. | ARRASATE
H,O2topoz izenburua duen antzerkia eskainiko du bihar, 20:30ean, Iñaki Mata aktore antzuolarrak. Antzerkia Biteri plazan izango da eta herritar guztiak daude gonbidatuta hitzordu horretara.

Biharko emanaldian, gainera, aktore antzuolarrak Begoña Mar-

tin dantzariaren laguntza izango du. Izan ere, hark koreografia txiki bat eskainiko du ikuskizunean.

Gurpildun aulkia

Bihar egingo den emanaldian protagonista nagusia gurpildun aulki bat izango da. Esan daiteke nahiko proposamen bisuala dela eta olerki irudian oinarrituta dagoen ikuskizuna dela.

Mataren esanetan: "Urte askoan zehar jaso ditudan esperientziak hartu ditut kontuan ikuskizun hau sortzeko orduan"; hain zuzen ere, ikuskizunean, haren esperientziak islatzen dira.

Hurrengo hitzordua

Matak aitortu duenez, Arrasaten egingo den emanaldiarekin ez da *H,O2topoz* amaituko. Asteburuan Belgikara doala ere esan digu. Izan ere, bertan *Barreras* antzerkia eskainiko du. Handik Euskal Herrira itzuliko da.

Restaurante
UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

URONDO
Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

arbolapeta

beinke
arrasate

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Mikel Andueza domingotar bergararra Donosti Cupen, El Salvadorko Tacuba taldearekin

Realak Tacubako gaztetxoaren futbol txapelketa lagundu zuen bere garaian, eta Donosti Cupen parte hartzeko gonbidapena jaso dute aurten

EDU MENDIBIL | BERGARA

El Salvadorren lanean dabilen Mikel Andueza domingotar bergararra Tacuba taldearekin etorri da, Donosti Cupen parte hartzera. Realak Tacubako gaztetxoaren futbol txapelketa lagundu zuen bere garaian, eta Donosti Cupen parte hartzeko gonbidapena jaso dute: 18 lagun etorri dira El Salvadortik. Hamar egun egin dituzte gure artean eta Andueza hilaren 19ra arte geratu da Euskal Herrian. Hain zuzen, *Real Sociedad-Tacuba: futbolaren, bizitzaren eta baloreen bi eskola, 10.000 kilometrotara* mahai-ingurua izan zen herenegun San Telmo museoan. Anduezarekin batera, Jokin Aperribai Realeko presidentea, Iñigo Olaizola Donosti Cupeko zuzendariak eta Mila Andueza, Mikelen arreba eta Oscar Romero solidaritate batzordeko presidentea hartu zuten parte. Jose Mari Urkiak, Baloreen Eskolako presidentea izan zen moderatzailea. Kirolak gazteen baloreen heziketan duen garrantziaz jardun zuten.



Mikel Andueza (ezkerrean), Tacubako taldearekin, Anoetan. | MIKEL ANDUEZA

Realarekin hartu-emana

Anduezaren arabera, esperientzia guztiz aberasgarria eta ahaztezina izan da Tacubako gaztetxoendako Donosti Cupen parte hartzea. Orain dela bizpahiru urte, Iñaki Galdos orduko kirol diputatuaren bitartez, Jose Luis Goñi Realeko direktiboa ezagutu zuen Anduezak eta hortik etorri da kolaborazioa. Realak kirol materiala bidali zuen Tacubara,

hango gaztetxoek futboleko jokatze aukera izan zezaten eta abenduan lehen futbol txapelketa antolatu zuten. 800 gaztetxo inguruk hartu zuten parte eta selekzio moduko bat egin zuten Donostian lehiatzeko: "Dena primeran joan da eta orain esperientzia honi jarraipena ematen ahaleginduko gara Tacubako eskoletan", dio Anduezak.

Mikel Diez zenaren margo erakusketa uztailaren amaierara arte ikusgai dago Aroztegi aretoan

Mikel Diez zenaren margo erakusketa ikusgai dago Aroztegi aretoan. Margolaritzan zein txotxongiloen munduan Mikel Diezek (1967-1996) egindako lana jaso dute erakusketan Bearteko kideek. Uztailaren 29ra arte izango da zabalik Barrenkaleko aretoan: astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era, zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta jai egunetan, goizez.

'Askatasunaren ibilbidea' martitzenean gaztetxeko patioan, uztaileko zine emanaldien barruan

Gaztetxeko kanpoko patioan zine emanaldiak antolatu dituzte uztaileko martitzenetan. Emanaldiak doanekoak dira, 22:30ean. Datorren martitzenerako *Askatasunaren ibilaldia* iragarri dute. Julian Schnabelen *La escafandra y la mariposa* ikusteko aukera izango da hilaren 24an eta azken emanaldia hilaren 30ean izango da: *La cortina de humo*, Barry Levinsonena.

Txus Blues & Jose Bluefingers bikotearen kontzertua Espoioian eta Hipo eta Tomax pailazoak Muniben

Berumuga programazioaren barruan gaur, egubakoitza, Txus Blues & Jose Bluefingers bikoteak emanaldia egingo du Espoioian, 22:00etan. Bartzelonatik datoz Txus Blues & Jose Bluefingers eta bluesa eta umorea uztartzen dituzte. Bestalde, Hipo eta Tomax pailazoaren Beldurraren etxea izenburuko ikuskizuna eskainiko dute gaur Muniben, 19:30ean.

Santa Marinako jaietako emanaldia egingo du Udal Musika Bandak domekan Udal Pilotalekuan

Udal Musika Bandak Santa Marinako jaietako emanaldia egingo du domeka eguerdian Udal Pilotalekuan. Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean, honako piezak eskainiko dituzte Bandako kideek: *Maria la portuguesa*, *Pique Dama*, *La Gran Via*, *Benny Goodman memories*, *Amapola* eta *Antzuolako doinuak*. Emanaldia 12:30ean hasiko da.

AUKERA AZOKA



UZTAILAK
18-19-20
10:00-20:00

EIBAR

TORIBIO ETXEBARRIA KALEA

Beherapenak

Katetxo - Lola's
Burbujas y más
Guby chicos - Cedry
Tribeka - Lide
Guby chicas - Bianco
Txukuna - Oskarbi
Etxedreams
No comment - Nona
Ikusimakusi
Kopiña - Farmalur
Izane - Pissa
Gloss Moda Joven
Ttiki - Gratzina
Arizona jeans
Askasibar
Rosa Dominguez
El Corte Inglés



"Demokrazia eskaseko" jarrerak ditu Gobernuak, EAJren ustez

- ▶ Udal Gobernuaren urtebeteko jardunaren balorazioa egin du oposizioak
- ▶ Politika ekonomiko "arduragabea" egitea leporatu diote, besteak beste

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Udal Gobernuak urteko jardueraren gainean joan den astean egindako balorazioari erantzun nahi izan dio EAJko udal taldeak, eta eguaztenean agerraldia egin zuten horretarako.

Oposizioko alderdiaren ustez, Gobernuaren kontraesana "izugarria" da eta "Bilduk herri partaidetzarekin bandera politikoa egin arren, errealitateak erakusten duena bestelakoa da".

Pertsonal gastuak gora

Bilduk eta Aralarrek osatutako Udal Gobernuak krisi ekonomikoa kudeatzeko modua kritikatu zuen EAJk, eta adierazi zuten "politika ekonomiko arduragabea" jarraitu duela. Horren harira, salatu zuten pertsonal gastua %35 hazi dela eta horrek "sekulako pisua" ekarriko duela, eta Udalaren etorkizuna "erabat hipotekatu". Oposizioaren esanetan, Bergarako Udalak 153 langile zituen 2007an eta 182 gaur egun.

Ekonomia kontuekin jarraituz, EAJk salatu zuen gaur egun Udal Gobernuak alkatea eta bi zinegotzi ordaintzen dituela soldataz, eta, haien hitzetan, "2007ra arte Udalak politikari bakarria izan du beti soldatarekin".

Udalak Cespako langileekin izandako auzia eta ondorioz ordaindu beharreko kalte-ordaina ere izan zuen hizpide oposizioak.



Aintzane Oiartzabal eta Vitoriano Gallastegi, eguazteneko agerraldian. | A. BARRUSO

"Kaleratutako langileei 250.000 eurotik gora ordaindu beharko die. Gainera, langile horiei eta euren familiei egindako kalteak era asko arduratzen gaitu. Horrez gain, hilabete luzetan kontraturik egon diren beste langileen lanpostuak ez dira ez argitaratu, ez deialdirik egin. Honek beste langileekiko eta langabezia dau denekiko justiziarik gabeko egoera sortu du".

"Demokrazia eskasa"

EAJk, bestetik, "demokrazia eskaseko jarrerak" salatu zituen: "Sindikatuak eta Gobernuak bitariko mahaia sortu dute. Ondoren, gaia osoko bilkurara eraman eta gehien-

go nagusia inposiziozko zentzuan gehiago erabiltzen dute adostasunezko zentzuan baino. Era honetara oposiziozko zinegotziak elkarriketa eta erabakietatik kanpora uzten gaituzte Udaleko zenbait gai garrantzitsutan, hala nola sindikatuekin lortutako akordioetan, Seminarioari dagokion erabakietan, Mankomunitatean, Mizpirualdeko kudeaketan..."

Herri partaidetza zalantzan

Udal Gobernuak herritarren parte-hartzean egindako lana ere zalantzan jarri zuen EAJk: "Behin eta berriz eskatu arren, ez digute atez ateko zabor bilketaren bidegarritasun planik aurkeztu, ezta aurrekonturik ere. Hau al da Bilduk kanpaina osoan aldarrikatzen zuen partaidetza eta gardentasuna?". EAJko zinegotzien ustez, Gobernuak oso errespetu txikia erakusten die Bergarako herri ekimenei. Horren ildora, EAJk eta atez atekoaren kontra herrian sortutako plataformak bilketa sistema horren kontra jasotako 4.700 sinadurei "muzin egitea" aurpegiaratu zituen Gobernuari: "Hautes-kunde zentsuaren %43 suposatzen duen jendearen partaidetzari bizkarra ematen dio Udal Gobernuak". Ildo beretik, eta joan den astean Udal Gobernuak egindako balorazioari erreferentzia eginez, hauxe gaineratu zuten: "Nola esan daiteke jendeak, oro har, ondo ikusi dituela Udal Gobernuak hartutako erabakiak kontrako 4.700 sinadura jaso ondoren.

Udal Gobernuak joan den astean adierazi zuen 2012ko aurrekontuan gizarte zerbitzuetan murrizketarik ez dela egongo. Bada, horren harira EAJko zinegotziek adierazi zuten ez daudela ados "Mizpirualden hamar ohe murriztearekin", eta Gobernuak ez duela horren gaineko "pisuzko arazoirik" eman.

ESANAK

"Pertsonal gastua %35 igo da; bestalde, Udalak politikari bakarria izan du soldatarekin 2007ra arte eta orain, alkatea eta bi zinegotzi"

AINZANE OIARTZABAL | ZINEGOTZIA



Autoek jaso dute bedeinkapena

Egubakoitzean hasi eta martitzenera arte jaiak ospatu dituzte Aldai Egia auzoan. San Kristobal gidarien zaindaria izanda, urteroko autoen bedeinkapena egin zuten martitzenean eta zapatuan. Bedeinkapenez gain, lunch, musika eta dantzaldirik ere ez zen falta izan San Kristobal jaietan.



XABIER URTZELAI

Mujika
gozotegia

Gozogintzan nahi duzuna
Eskatu artisaizta eta tradizioa.

Artekalea 3 - BERGARA
Tel.: 943 76 10 34
mujikagozotegia.blogspot.com
mujikagozotegia@gmail.com

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

**TELEIXA
BILTEGIAK**

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

PSE-EE: "Udal Gobernuak galdua dago, proposamenak falta zaizkio"

A.B. | BERGARA

Alderdi sozialistak ere Udal Gobernuaren urteko jardunaren balorazioa egin du. "Esperientzia falta" salatu du, besteak beste, PSE-EEko zinegotzi Mari Carmen Barrene-txeak. Prentsa ohar baten bidez honakoa azaldu du: "Bilduk eta Aralarrek osatutako Udal Gobernuak kudeaketa txarra egiten ari da, aurrekoen lana jarraitzen ari dira esperientzia faltagatik. Galduta daude eta proposamen aktiboak falta zaizkie bizi dugun krisi larriaren aurre egiteko.

Badakigu austeritatea beharrezkoa dela, baina modu orekatuan, eta ez aurrekontuan egin duten bezain bortitza. Bergaran eguneroko bizitzan nahitaezkoa den jasagarritasuna lortzeko, beharrezkoa den aktibitateari eutsi behar zaio, eta hura garatu. Programa ekonomiko baten faltan, ez du ezertarako balio martxan ipinitako politika fiskalak. Modu horretan ezinezkoa da proiektua eta inbertsioak gauzatzea, ezta herriaren gutxieneko beharrak mantentzea ere, ez dutelako iniziatibarik. Ez dute diru-laguntzarik topatzen ezta kanpoko finantzazioa ere. Merezki du instituzioei laguntza eskatzea borroka politikoak alde batera utzita, horrek ez baitu batere laguntzen.

Atez atekoaren gaiarekin, Bilduren gainontzeko Gobernu batzuk bezala, Udal Gobernuak gehiengoak nahi ez duena inposatu nahi du.

Bestetik gobernu honek aurkeztutako proiektuen artean, gutxi izan badira ere, beharrezkoenak ez dira gauzatu: Ozaetako plaza, herriko hainbat kale asfaltatzea... auzoak utzita daude. Errepikatua nahi dugu autobus geltokia txukuntzeko beharra. Oinezkoen gunean semaforoa ipintzea ezinbestekoa iruditzen zaigu".



Mankomunitateak kontratatutako informatzaileak ari dira zalantzak argitzen eta datuak jasotzen. | TXOMIN MADINA

Hondakinen gaineko datuak dabilta jasotzen

Komertzio eta industrietako datuak eguneratu gura ditu Mankomunitateak

TXOMIN MADINA | OÑATI

Debagoieneko Mankomunitateak zortzi langile kontratatu ditu atez atekoari buruzko informazioa banatzeko, eta dagoeneko hasi dira lanean.

Lehenengo lana dute jatetxe, taberna, komertzio eta erakundeen inbentarioa egitea eta horien beharrak zehaztea, eta horretan ari dira egun hauetan Oñatin.

Hondakin kopurua eta mota

Maialen Idiazabal eta Olatz Izagirre dira Oñatiko komertzio eta industrietan atez atekoaren gaineko informazioa ematen ari direnak. Duela bi aste hasi ziren lanean, eta euren lehen eginbeharra herriko komertzio, jatetxe, taberna eta erakundeen inbentarioa egitea eta izan ditzaketen beharrak zehazten hastea da.

Momentuz, lehen kontaktua izan da egin dutena. "Euren zalantzak argitzen saiatu gara, eta zein behar dituzten jasotzen. Esaterako, lehen kontaktu honetan galdetu diegu zer-nolako hondakinak sortzen dituzten eta zenbat edukiontzi eta ze dimentsiotakoak beharko dituzten hondakin horiek batzeko", azaldu du Olatz Izagirre informatzaileak.

Datozen egunetan berriz ere elkartuko dira merkataria, ostalari eta erakundeetako ardura-dunekin, beharrak zehazten joateko. Izan ere, esaterako, denda edo erakunde batzuetan apenas sortzen dute hondakin organiko-rik, eta beste komertzio edo industria batzuetan, aldiz, horixe da sortzen den hondakin kopuru handiena. Kopuruak eta ezaugarriak jasoko dituzte, bakoitzak

dituen beharretara egokitzeko aurrerantzean egingo duten hondakinen bilketa.

Bi bulego Oñatin

Mankomunitateak kontratatutako zortzi langile horiek (Bergaran eta Oñatin ari dira momentuz lanean) izango dira gero herri-tarren zalantzak argituko dituztenak. Izan ere, behin merkatariekin, ostalariekin eta erakundeekin egin beharreko lana egin ostean, eurak izango dira bi herrietan jarriko dituzten herri-tarrendako informazio bulegoetan egongo direnak. Irailean zabalduko dituzte informazio bulego horiek. Oñatin bi egongo dira: bata San Lorentzon, Artxubi tabernaren ondoan, eta bestea kale zaharrean, lehen Egaña okindegia izandako tokian.



AHH KOOPERATIBA

Udaleku irekiek egin dute erdia dagoeneko

Udaleku irekiek egin dute aurtengo erdia. Eskulanak, mozerro tailerra eta San Ferminetako txupinazoa eta entzierroa egin dituzte, adibidez. Baina bigarren hamabostaldirako planak ere eginda dituzte. Adibidez, Usakora joan, festa hawaiarra eta pirata eguna egin, olinpiadak jokatu eta batez ere, ondo pasatu.

Lapurretan egin dute Haitzalde elkarte, eta Oinarrin ere barrura sartzeko saiakera egin dute

Martitzen gauean izan ziren gertaera biak. San Anton kaleko Haitzalde elkarte gastronomikoan kutxa gogorra apurtu zuten, baina hutsik zegoen. Bazkideek ez dute balioko ezer faltan igarri. Aita Madina kaleko Oinarrin elkarte, berriz, barrura sartzeko saiakera egin zuten. Udaltzaingoa argitu duenez, sarraila apurtu zuten, baina ez zuten barrura sartzerik lortu.

Datorren udazkenean egingo dute Oñatiko VI. bertsolari txapelketa, azaroan eta abenduan

Udazkenean, azaroan eta abenduan, egingo dute Oñatiko VI. bertsolari txapelketa, eta izen-ematea zabalik dago. Domekara arte egin daiteke. Horretarako bideak: o.bertsoeskola@gmail.com edo 666 33 44 54. Parte-hartzaile kopurua jakinda hasiko dira bertso eskolako txapelketa prestatzen: gaiak pentsatzen, antolaketa lotzen edo txapelketaren formatua erabakitzen; izan ere, tabernetako saioen edo bertso afarien aukerak zabalik daude.

Zazpitan jaitsiko da gaur Asto Trasto, eta domekara arte iraungo dute Trianako jaiei

Asto Trastok emango die gaur iluntzean hasiera Trianako jaiei. Gaurko dantzaldiaren ostean, esaterako, gauerditik aurrera, *Aurkitu bikotea eta tragua gratis* ekimena egingo dute. Domekara bitartean, umeendako jolasak, ilinti kafea, mus txapelketa, erromeria, sokasalto lehiaketa, herri bazkaria eta Makulu Ken taldearen disko aurkezpena izango dira, besteak beste.



Emakume bat, Zumarragarako autobusa hartzen, martitzenean. | O.E.

Autobusak Aita Lizarralden gelditzen dira orain, ez Euskadi etorbidean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Euskadi etorbideko autobus geltoki biak Aita Lizarraldera pasa dituzte dagoeneko, eta astelehena ezkerre hantxe egiten dute geldiduna autobusek. Beraz, autobusak ez dira erdigunetik pasatzen. Aurrerantzean, Zumarragako norabidea duten autobusak zebra-bidearen ondoan egokitutako geltokian dute gel-

diunea eta Arrasaterako noranzkoa duten autobusak, berriz, Kalegoien parean.

Autobus geltokien aldaketekin batera, zirkulazio aldaketak ere aurreikusten zituen Udalak, hala nola lehen autobusak egin zituen zati batzuk noranzko bakarrekoak bihurtzea. Aldaketa horiek udaltzaingoarekin ari dira lantzen.

OHARRAK

EGITARAUKO AZAL LEHIAKETA
Gaur, uztailak 13, da azken eguna San Migel jaien egitaraua jasoko duen programaren azal lehiaketarako lanak aurkezteko. Kultura etxean entregatu behar dira.

MIRENTXINEKO ZOZKETA
Mirentxin Gidariak taldeak egin du txartelen zozketa eta hauxe da zenbaki saritua: 799.

Txartelaren jabeak Arrano tabernatik pasa behar du saria jasotzera.

1982KOEN KINTADA

1982an jaiotakoek kintada egingo dute, 30 urte betetzen dituztela ospatzeko. Irailaren 8an izango da, Soraluze jatetxean. Joateko, 50 euro sartu behar dira Kutxako kontu honetan: 2101 0111 22 0126550706.

Hondakinak erretiratuen hausnarketarako gai

Politiziotik aldendu eta gogoeta sakona egitera gonbidatu du Basotxok

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Hiri hondakin kudeaketa dela eta herritar asko kezkatuta dago, tartean erretiratuak. Haien iritziz, gaiaren azalpena ez da beti "era positiboan" egiten: "Egun, eztabaida, ulermen falta, politizazioa... gai bihurtu da". Hori dela eta, Basotxo erretiratuen elkarteko zuzendaritza batzordeak gogoeta egiteko dei egin die bazkideei, ideia batzuk emanaz horretarako.

Gogoetarako abiapuntua

Hausnarketarako abiapuntutzat honako ideiak bota dituzte: "Iraunkortasuna eta zero zaborra interesatzen zaizkigu eta konpromisora eraman behar gaituzte; zaborren bilketa sistemak arrakasta izatea herritarren esku dago; erabili beharreko sistemaren inguruko erabakia erakundeena bada ere -udalak, Diputazioa-, herritarrek badute irizpidea zer duten nahiago adierazteko; erakundeek herritarrek entzun beharko lituzkete sistemaren inguruko erabakia hartu aurretik; eta era asko dago herritarren iritzia entzuteko".

Basotxoko kideek diote bai atez ateko sistemak, bai edukiontzien bitartez egindakoak, zaborrak era egokian sailkatze-ko aukera ematen dutela, "nahiz eta informazio oso interesatu eta objektibotasun gutxikoek ez dela horrela ziurtatu". Eta gaineratu dute: "Bosgarren edukiontzia, konparaziorako erabili dena, amaitu gabe dagoen eta arreta gutxi eman zaion proiektu baten isla da; gainera, esan behar dugu, atez atekoari buruz, egia eta objektiboa bailitzan entzuten duguna ere, ez zaigula hain argia iruditzen. Eta horrek guztiak ez garamatza bata bestea baino hobea dela esatera".

ESANAK

"Iraunkortasuna eta zero zaborra interesatzen zaizkigu"

BASOTXOKO ZUZENDARITZA

Horregatik, uste dute sistema edozein izanda ere baldintza batzuk bete behar dituela, tartean honakoak: "Herritarren heziketa eta borondatea beharko da; sistema erraza eta eroso izan dadila; neurtu egin beharko da jarraipen zehatza eginez; eta bukaerako sailkapenaren mantentze lana eta egoki tratatzea ezinbestekoak izango dira".

Beste hainbat ideia gaineratu dituzte: "Zaborrik onena sortzen ez duguna da; gure ustean oso garrantzitsua da sortutako zaborra (bereziki usain txarra badu) eguneko edozein unetan utzi ahal izatea; sailkapena ezin da egon gure lan ordutegien menpe, ezta gure bizilagunen laguntzaren menpe ere..."

Elkargune anonimoa sortu

Proposatu dute atez atekoaren aldekoen eta bosgarren edukiontzien aldekoen elkargune anonimo bat sortzea kontuak aztertzeke: "Edukiontzien sistema ontzat eman, indarrez eta ilusioz bultzatuta; sistemaren duen ahalmena eta arrakasta kontrastatzeko epe bat markatu..."



Herritarrek, kirodegiko hirugarren solairuan, igerilekuari begira. | M.A.

Dagoeneko herritar mordo pasatu da kirodegitik

M.A. | ARETXABALETA

Astelehenean hasi zituzten bisita gidatuak Ibarra kirolegian, eta dagoeneko 1.000 herritar inguru pasatu da. Harrituta geratu dira gehienak, "argitasun handia" eta "espazio zabalak" dituelako; eta gunerik gustukoena, igerileku eta spa gunea da. Bisitekin jarraituko dute hilaren 26ra arte -hilak 13, 16 eta 26, 11:00etan eta 17:00etan; 18 eta 19, 11:00etan, 17:00etan eta 18:15ean; eta 21ean, 11:30ean-.

Udalbatzak astean onartu ditu kirodegiko tarifak. Datorren astean etxe banatuko dute argibideak jasotzen dituen eskuorria, eta orduan jarriko dute abian abonatzeko kanpaina.

Kirolegi berria xehetasun gehiagorekin asteleheneko *Goiena* paperean.

TARIFAK⁽¹⁾⁽²⁾ HILABETEKOKO - EUROTAN

IZAERA	ARETXABALETAN ERROLDATUAK	KANPOK.
Umea (3-13)	14,30	15,40
Gaztea (14-17)	22,00	24,20
Heldua (18-65)	26,40	29,70
Nagusia (ordutegi murriztua)	17,60	18,70
Umeak, bi gurasoak abonatuta	--	--
Umeak, guraso bat abonatuta	8,80	9,90
Gazteak, bi gurasoak abonatuta	6,60	8,80
Gazteak, guraso bat abonatuta	13,20	14,30
Gazteak, 3 seme-alaba bi gurasoak abonatuta	--	--
Langabea (ordutegi murriztua)	17,60	18,70
Elbarriak (%65)	6,60	7,70
Jarduerak (2 saio astean)	11,00	11,00
Gainontzeko jarduerak orduko	5,50	5,50

(1) Matrikula gehitu behar zaie.
(2) BEZaren azken igoera aplikatuta daukate tarifa hauek.

Loli Torres da ekaineko Aretxarteren azken saritua

Aretxarte merkatarien elkarteak bezeroen artean sariak banatzen jarraitzen du eta ekaineko azken astean Loli Torres aretxabaletarra saritu zuen. Lie lurrindegian erosketak egiteagatik Martin erloju-dendako oparia jaso zuen hark. Dagoeneko sari mordo bat banatu ditu Aretxartek eta uztailera banatzen ere hasi da.



ARETXARTE

Ane Gartzia egindako irudiak emango du Andramaixa jaien berri

Egitarauan esaldi hau agertuko da: 'Pozik eta umoretsu, hartu Andramaixak gogotsu!'

M.A. | ARETXABALETA

Andramaixetako egitarauan erabiliko duten irudia aukeratu du egunotan Jai batzordeak, Ane Gartzia Gabiria aretxabaletarra



Andramaixetako kartela. | ANE GARCIA

egindakoa, hain zuzen. Lau lan aurkeztu zituzten lehiaketara, eta Gartziaarena hautatu dute epaimahaiko kideek. 200 euro jasoko ditu hark saritzat.

Bestalde, esaldi lehiaketako sariak ere banatuta daude. 24 taldek egindako 77 esaldi jaso dituzte, eta egitarauan erabiliko dutena Irati Zubillagak eta Esti Meabek asmatutakoa da: *Pozik eta umoretsu, hartu Andramaixak gogotsu!* Pegatinak egiteko erabiliko dituztenak, oster, hiru dira: *Dantza, salto eta jiro, Andramaixetan bada giro!* - Leire Meabe eta Ainhoa Elortza-; *Egun-pasa edo gau-pasa, girue demasa* - Jasone Gorroño and Company-; eta *Askatu barrue, libratu burue, suelto dantzatzeko da ta Andramaixetako doinue* - Jasone Gorroño and Company.

PIENSOS
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY


Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



bisita gidatuak

egun **berriak**

uztaila



asteazkena

18:15



osteguna

18:15



larunbata

11:30



ostirala

11:00
17:00



astelehena

11:00
17:00



asteazkena

11:00
17:00



osteguna

11:00
17:00



osteguna

11:00
17:00



#ibarrakiroldegia

• Markole auzoa z/g | 20550 Aretxabaleta
• Tel. 943 039 842 | info@ibarrakiroldegia.com

zatoz **ikustera!**



ibarra
KIROLDEGIA

...merezidau!



Peñakarga elkartearen bost kideak, Aretxabaletako Muru Alde elkartearen egun zuten batzarrean. | A.T.

Peñakarga elkarte berria sortu dute auzolanerako

Mendiolatik Kurtzebarri aldameneko Kargalekurainoko pista arduratuko da

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA

Lau kilometroko pistaren kudeaketaz arduratuko da Peñakarga elkarteak; Mendiolan hasi eta Kurtzebarri aldameneko Kargalekurainoko pistaren kudeaketaz arduratuko da, hain zuzen.

Elkarteak 50 soziok osatzen dute: baserritarrek, Kurtzebarri inguruan txabolak dituzten pertsonak, ehiztari talde batek eta parapentea praktikatzeko duten bi taldeetako kideak.

Elkarte formalizatzen

Taldea duela 20 urte sortu zuten, baina orain estatutuak sortu eta taldea formalizatu nahi dute, eurek kudeatzen duten zona Aizkorri-Aratzeko parke naturalak hartuko duen zona izango delako. Martxoan erabaki zuten Bedoñan egindako batzar batean elkarte formalizatzeko garaia zela. Horregatik, Jaurlaritzara elkarte moduan erregistratzeko dokumentazioa apirilean bidali zuten eta orain haren erantzunaren zain daude.

Nahi dutena da elkarte formalizatzea Diputazioak parkeko baldintzak zehaztu aurretik. "Parkeko baldintzak Diputazioak zehaztu behar ditu eta guk nahi duguna da arau horiek atera aurretik baldintzak eurekin zehaztea eta negoziatzea" esan digu Peñakargako lehendakari Angel Mari Etxabek.

Peñakarga izena hemendik dator: pista zati horri esaten diote Peñakulotik Kargalekurako bidea dela eta estatutuetan hitz bakarria eskatzen zuten, bien artean izen hori osatu zuten: Peñakarga.

Auzolana helburu

Peñakarga elkartearen helburu nagusia da auzolanaren bitartez aipatutako pista mantentzea basoko autoekin gora eta behera ibili ahal izateko eta kuota bat ordaintzen dute sozioek lortutako diruarekin urtero hiru auzolan egiteko.

Zapatuan joango dira lanera

Otsaileko bigarren larunbatean egin zuten urteko lehen auzolana eta urteko bigarrena zapatu honetan bertan egingo dute, bihar. Bidea garbituko dute eta bertan dauden arramak eta narrak kenduko dituzte.

Auzolanerako taldeetan banatzen dira eta zapatuan hiru bat orduko lana izango dutela aurreikusten dute. Hamarretakoa egiteko bide erdian dagoen Uxarteko txabolan elkartzeko dira eta goiza giro onean igaroko dutela esan digu Etxabek: "Guztiok ezagutzen dugu elkar eta gure artean giro oso ona dago, ez dugu inolako arazorik izaten eta ondo konpontzen gara".

DATUA

50

SOZIO

Baserritarrak, ehiztariak eta parapentea egiten dutenak daude elkartearen.

Gaur amaituko dute auzolandegia, bi aste lanean egon eta gero

Azken bi aste hauetan Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 15 gazte Eskoriatzan ibili dira auzolanean Alberka ingurua txukuntzen eta konpontzen. Gaur, egubakoitza, izango da euren azken eguna, eta afari eder batekin agurtuko dute elkar. Gazteak oso gustura ibili dira lanean Eskoriatzan, eta, lanaz gain, arratsaldeak bailarako inguruko txokoak ezagutzeko aprobe txatu dituzte. Aurten lehen aldiz antolatu dute auzolandegia herrian, eta balorazioa positiboa izan da. Ibarraundi museoko Eneritz Zubiak esan digu "pozik" daudela gazteek egin duten lanarekin.

Nestor Calleja izan da Aste Zapatistako zozketako irabazle

Aste Zapatistan atera zituzten txartelen zenbaki sariduna 1.398 izan zen eta Nestor Calleja aretxabaletarra izan da irabazlea. Hondarribiko Postigu nekazari etxean bi lagunendako egonaldia irabazi du sariarekin Callejak.



ASTE ZAPATISTA

Asteburuan bi kontzertu, Errekan Gora ekimenean

Tom Tom Makuts eta Mikel Urdangarinek eskainiko dituzte asteburu honetako emanaldiak

A.T. | ESKORIATZA

Joan den egubakoitzean eman zioten hasiera Errekan Gora ekimenari. Huheziko klaustroan kontzertua eskaini zuten Mikel Markez eta Erramun Martikorenak, eta hasiera bikaina eman zioten; izan ere, jendez lepo egon zen.

Oraindik, baina, kontzertuak hasi besterik ez da egin eta Errekan Gora ekimeneko ekitaldi ugari gelditzen dira. Asteburuan beste bi emanaldirekin gozatzeko aukera izango da Eskoriatzan.

Kontzertuak

Gaur, egubakoitza, Tom Tom Makuts taldearen eskutik, jazz, funk eta hip-hop erritmoak entzun ahal izango dira Gerrika plazan, 22:30ean.

Bihar, zapatua, Mikel Urdangarinen txanda izango da, eta *Zuzenean* diskoko abestiak entzun ahal izango dira Azkoaga Hotelean, 22:30ean.

Hurrengo beste bi asteburuetan ere izango dira kontzertu gehiago, Aitzorrotx kultur elkarteak antolatuta.



Mikel Urdangarinek zapatuan emango du kontzertua. | AMETS-EROAK.COM

NIRE USTEZ

NESTOR ARANA



Herri taupada, demasekoa!

Askotan aipatzen dugu, gaur egun ez dugula herriko ekimenetan parte hartzen, eta oso litekeena da. Gainera, badirudi kontsumismoaren garai honek ez digula batere laguntzen. Ildo honetan bi gertakari partekatu nahi nituzke zuekin guztiok.

Eskoriatzako udalak jolas parkeen inguruko eztabaida irekia antolatu zuen. Egundak horretan jolas parkeetan guraso asko egon arren bileran gutxi zeuden.

Badakit, askok ekarpenak gustura egingo lituzkeela, baina arrazoi ezberdinagatik ez ziren bertan; foroetan parte hartzeko ohitura falta, ote?

horrelako foroekiko mesfidantza, ote?

Bigarren gertaera bestelakoa da. Eskoriatzako San Pedro festetan herritarrek egindako *Herri taupada* ikuskizuna da. Ikuskizun horretan batukada, koroa eta argi ikuskizuna nahastu zituzten. Jean Michel Jarre handiak ere ez luke horrelako ikuskizunik egingo, eta benetan zoriontzekoa da bertan parte hartu zuten guztiak; polita izateaz gain, ezberdina eta bertizalea izan zen, demasekoa!

Nik uste herritarrok gauza eder asko egin ditzakegula, gure herri bizitzari beste kolore bat eman.

Aprobe txatu dezagun krisi garaia, kontsumismotik aldentu eta bakoitzak ahal duenetik ekarpenak egiteko, aukera aparta da!

"Aprobe txatu krisia ekarpenak egiteko"

Aste bukaera indartsua jaiei jarraipena emateko

Bihar, zapatua, egingo dute Mairuaren Alardea, 19:00etan hasita

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Motorrak berotu dituzte dagoneko antzuolarrek, atzo eman zieten eta jaiei hasiera. Baina gaurtik domekara arte badago zerekin gozatu. Gaur herri bazkaria izango da Kalebarrengo arkupeetan eta gauean erromeria Zesuma taldearekin plazan.

Txosnagunean, aldiz, rock kontzertuak, 23:00etan hasita, Los Galerna eta A Fight to Live taldeekin; ondoren, erromeria. Bihar, berriz, Mairuaren Alardea egingo da, 19:00etatik aurrera. Gauean, Gozategi taldeen erritmora dantza egiteko aukera izango da txosnagunean. Eta aurten ere Joselu Anaïen bisita izango da.

Autobus zerbitzu berezia

Gaur eta bihar, uztailaren 13an eta 14an, autobus zerbitzu bereziak izango dira, gauez, Zumarragara eta Bergarara joateko. Antiguan izango du geltokia autobusak. Eta autobusen maiztasuna, 23:40an hasita Antzuolan, goizeko seieta bitartekoa izango da; ordu erdian behin irtengo dira.



Iazko Mairuaren Alardea. | GOIENA

UDAL EGITARAUA

EGUBAKOITZA

13

10:00 Txistularien GOIZERESIA.

10:45 GASTRONOMIA lehiaketa.

11:00-13:30 Umeendako JOLAS PARKEA eskolako patioan.

12:00 MEZA NAGUSIA.

12:45 SARI BANAKETAK: gastronomia eta balkoi eta leihotako lore apainketenak.

13:00 PATATA-TORTILLA dastatzeko aukera.

14:30 HERRI BAZKARIA Kalebarrengo arkupeetan.

16:30-18:30 JOLAS PARKEA.

18:30 PONEYAK, ZEZENTXOAK eta KOADRILEN JOKOAK Zurrategin.

22:30 ZESUMArekin erromeria

00:00 ZEZENSUZKOA plazan.

00:15 ZESUMArekin erromeria

ZAPATUA

14

09:55 Kanoiak sutzea.

10:00 Txistularien GOIZERESIA.

11:30 BERGARAKO BANDAREN kalejira.

12:30 BERGARAKO BANDAREN kontzertua, Zurrategin.

19:00 MAIRUAREN ALARDEA.

21:30 HERRI AFARIA Zurrategin.

22:30 JOSELU ANAIK plazan.

00:00 ZEZENSUZKOA plazan.

00:30 JOSELU ANAIK plazan.

DOMEKA

15

12:00 ERIZ MAGOA plazan.

12:00 Lehen TXAKOLIN Eguna.

17:00 PILOTA partiduak:

► Ongay-L. Galarza/Gorka-Larrinaga

► Aritz Lasa-Zabaleta/Mendizabal III.A-Laskurain

19:00 KLOWN saioa plazan.

20:30 LARRAIN DANTZA Ondarreko gaitariekin lagunduta.

20:45-22:30 DJ saioa Bidusoundekin, herriko plazan.

23:00-00:00 DJ saioa Bidusoundekin, herriko plazan.

00:00 HONTZAREN IGOERA.

Herriko kirol talde guztiendako laguntzak

M.A. | ANTZUOLA

Kirol taldeei dirulaguntzak emateko oinarriak aldatzeko proposamena onartu berri du Udal Gobernuak. Hala, herriko zazpi kirol taldek eskatu ahal izango dute dirulaguntza aurrerantzean: Lokatzak, Arrolak, Ariznoak, Olaldeak, AKEk, Peña Aiastuik eta Eperra ehiza elkar-teak. "Ohartu ginen dirulaguntzek zeuden moduan araututa arazoak sortzen zituztela herrian, talde asko ditugu eta lanean. Militante eta boluntario asko dugu lanean, eta dirulaguntzen eskakizuna handia da. Gainera, kanpotik ikuskaritza bat etorri gero arazoak eduki genitzakeela aurreikusita, talde guztiakin adostu dugu. Orekatuak eta ekitatiboak nahi ditugu; talde txikiei ere egiten duten lana errekonozitzea da asmoa". Hala, talde guztiakin adostuta, diru partida oso-osorik banatu nahi dutela azaldu digu Saidik: "Orain arte, ez zen diru guztia banatzen, taula batzuk eta formula batzuk zudelako. Irizpide horien arabera, diru partida guztia ezin zen banatu. Eta dena banatzeko asmoz ere planteatu dugu aldaketa. Datak ere aldatu ditugu, dirua lehenago jasotzeko; denboraldia bukatu aurretik".



Antzuolako jokari gazteak. | GOIENA

Erreserbak egiteko epea

Antzuolako kirol instalazioetan eguna eta ordua hartu ahal izateko erreserba egiteko epea zabalik dago uztailaren 17ra arte. Hala, irail hasieratik uztail bukaera bitartean, 2012-2013 denboraldian, eskolako patioa, frontoia edo Eztalan jokatzeko aukera dago. 943 76 62 46 telefonora deituta edo www.antzuola.com webgunean egin daiteke eskaera.



GAZTETXEKO EGITARAUA

EGUBAKOITZA, 13

Bazkalostean txosnetan jolasak.

19:30 Elektrotxaranga.

23:00 Kontzertuak: Los Galerna, A Fight to Live eta erromeria.

07:00 Txokolatea.

ZAPATUA, 14

21:30 Herri afaria. Ondoren, Gozategi, Klak!son, Skasti.

07:00 Txokolatea.

DOMEKA, 15

20:30 Triki-poteoa.



135
gaztetxo
txupinazoan

JONE LARRAÑAGA

Udalekuetako gaztetxoek San Fermin jaiei ongietorria egin zieten uztailaren 6an, urtero legez. Aurten 135 gaztetxo elkartu dira. Goizean, herri kirolak egin zituzten; 11:30ean, zezenaren bila aritu ziren Antzuolan barrena, eta, pistei esker, eskolan topatu zuten. 12:00etan txupinazoa egin zuten, buruhandi eta guzti!

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

PATXI
CASTRO



Era guztietako aukien konponketa

• Tapizatu lanak

• Zumezko eta kanaberazko artikulu salmenta

• Besaulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

Zabalo

IGELTSEROTZA

Ibon Zabalo
Iban Iraeta

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
Mugikorrak:
615 76 56 50 / 615 76 56 51
zabalos@hotmail.com

ZAHAR BERRITZEAK:

Birgaitzeak

Fatxadak

Teilatuak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

GAILUR

taberna eta
gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Lanak aurten egin behar, dirulaguntza ez galtzeko

Azkoagako saneamendu lanek lau hilabete iraungo dute; uda ostean hasiko dira, "denboraz oso justu"

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Azkoaga auzoko saneamendu lanak ez ziren 2012ko aurrekontuan aurreikusi, Udalak urte hasieran ez zuelako ahalmen ekonomikorik lanok suposatzen duten gastuei aurre egiteko. Bada, orain gutxi jasotako diru sarrera batzuk direla-eta, martxan jarri dute proiektua. Atzoko osoko bilkuran onartzekoak ziren saneamendu lanok martxan jartzeko oinarritzko puntuak, ezustekorik izan ez bazen behintzat –gure erredakzioa itxi ostean egin zen bilkura, 19:00etan–.

Zertan datzan obrak? Auzoan dauden hobi septikoetako urak Aramaio ibaira isurtzen dira egun eta proiektu honek aurreikusten du urok jaso eta auzoko baserri bakoitzak dituen hobiak ezabatzea. Hala, asmoa da ur zikinak Ibarrara bideratzea. Proiektua plan orokor baten barruan kokatzen da, hau da, beste auzo batzuetan dagoeneko eginda dauden saneamendu lanak falta diren auzoetara zabaltzea gura du Udalak. Hori, noski, Diputazioko dirulaguntzek ahalbidetzen badute izango da.

%80, Diputazioaren eskutik

Obraren aurrekontua 250.000 euro pasatzekoa da. %80, 200.000 euro inguru, Diputazioak ordainduko du eta gainerako %20a, berriz, Udalak. Diputazioak hitzeko konpromisoa agertu zuen eta asteon zen egitekoa jakinarazpen ofiziala. Andoni Solupe Hirigintza zinegotziak nabarmendu du dirulaguntza hori aprobetxatzearen beharra: "Obra honi garrantzia eman gura diogu denondako ona izango delako. Baina aurten



Azkoaga auzoko plaza, asteon. | JOKIN BEREZIARTUA

ESANAK

"Aukera baliatu behar dugu; bestela, auskalo noiz egingo den"

ANDONI SOLUPE | HIRIGINTZA

egin behar da derrigorrez, bestela 200.000 euroko laguntza galduko dugu eta murrizketak direla-eta ezin dugu jakin lanok noiz egin ahalko diren".

Hortik lanak martxan jartzeko prozesua lehenbailehen abiarazi behar izatea: "Auzotar batzuk galdetu digute ea zergatik egin behar den orain, prisaka. Lanak neguan eta eguraldi txarrarekin egin behar izatea ez zaie gustatu. Baina obra hau ez zen egin behar

eta azken orduko aukera baliatu behar dugu, bestela auskalo noiz egingo den". Auzotar gehienekin elkartu dira eta egoteke daudenekin datorren astean elkartuko direla adierazi du Solupek. Egon diren auzotarrekin orokorrean guztien oniritzia jaso dute baina kearen bat egon dela onartu du zinegotziak, eta "normala" dela gaineratu: "Batzuek eskatu digute *in situ* jakin gura dutela noraino kaltetuko dieten lanek. Joango gara eta erakutsiko diegu". Izan ere, obra zuzenduko duen Arabako Lanak SA enpresak ziurtatu du datozen bi asteetan egongo direla kaltetuekin obra zertan datzan zehatz-mehatz azaltzeko.

Lau hilabeteko lanak dira eta beraz, uda ostean hasi beharko dira. Lanak esleitu eta prozesua osoa martxan jarri, eguraldi txarrak ekar ditzakeen atzerapenekin: "Denboraz oso justu gabiltza", aitortu du zinegotziak.

Arexola eta Arriola auzoak Santa Marina jaietan murgilduko dira

J.B. | ARRASATE

Santa Marina jaiak datoz aste bukaeran Arexola eta Arriola-ko aramaioarrendako. Auzotarrek egubakoitzean hasi eta domekara arteko egitarau zabal antolatu dute; martitzenean egin zuten bilera, egitaraua eskuan zutela lanak banatzeko. Izan ere, auzotarrek auzotarrendako eginak dira jaiak. Hori bai, noski, kanpotik datozenak ongi etorriak izango dira, urtero moduan.

Bizikleta lasterketa bihar

Egubakoitzean, ohitura denez, 21:00etan auzoko bertso afaria egingo dute; aurten Uxue Alberdi eta Iker Zubeldia datoz. Zapatuko ekitaldien artean, bizikleta lasterketa nabarmendu beharra dago, urtero adin guztietako hainbat parte hartzaile batzen ditu-eta. Domekan, amaiteko, meza nagusiaren osteko Aramaio dantzarien emanaldia izango da ekitaldi nabarmena. Ondo pasa!

EGITARAU

EGUBAKOITZA, HILAK 13

20:00 Suziri jaurtiketa eta kanpai errepikapenez jaietako hasiera ematea.

21:00 Bertso afaria: Uxue Alberdi eta Iker Zubeldia.

ZAPATUA, HILAK 14

12:00 Meza Santua.

13:00 Ibarrik Arexolara bizikleta lasterketa.

17:30 Mus eta briska txapelketa plazan.

17:30 Kalejira.

19:30 Kanpai-jotze erakustaldia.

23:00 Dantzaldia Laja II. eta Narbaizarekin. Goizaldean txokolatea bizkotxoarekin.

DOMEKA, HILAK 15

12:00 Meza nagusia. Ondoren herriko dantzarien emanaldia.

18:00 Umeendako jolasak.

Bertako sendabelarrak ezagutzeko aukera Aramailurren eskutik

Aramailur taldeak sendabelarren gainerako jardunaldiak antolatu ditu. Gaur bideo emanaldia, etxeko botika naturalaren gainerako mahai-ingurua eta erakusketa egongo dira Sastiñan (19:30). Bihar, mendi buelta egingo dute bertako sendabelarrak ezagutzeko. Plazan geratu dira, 10:00etan.

Zabalik dago Gazte Uda ekimenerako izen-ematea

Deban paintballean jokatu eta Zarautzen surf ikastaroa egiteko izen-ematea zabalik dago. Lehen ekintzarako gaur da azken eguna eta bigarreneko, berriz, hilaren 20a. 13 urtetik gorakoendako ekintzak dira eta udaletxean eman behar da izena. Prezioa, hamar euro ekintza bakoitzeko.

NIRE USTEZ

ROSA MONDRAGON



Opor usaina giroan

Konturatu garenerako uztailen aurrera goaz! Eguraldi ona, egun atseginak, lanerako gogo gutxi, udako usaina da nagusi gurean. Bazter guztietan hartzen da usaina... Oso sentsazio berezia! Abuztuaren ateetan, jaiak gure artean ditugula, festa giroa eta errutinaren helmuga igartzen da nonahi. Momentua da urte guztian zehar prestatzen ibili garena egiteko, planak burutzeko, atsedena hartzeko edota abentura zoragarrienean murgiltzeko. Norberak egin dezala bere aukera!

Ez naiz nor zer egin behar duzun esateko, baina aprobetxatu momentua, funtsezkoa aukeratu, azalekoari paso eman,

errutina ahaztu, eta aukeratu duzun plan horri denbora gehiago eskaini.

Lanean, kalean, ... nabaria da, zirrikitu guztietatik sartzen da opor usaina. Urteko oporren atarian gaude, urte osoa eman dugu honen zain, gainean ditugu oporrak. Opor santuak. Ez da beste hizketa-gairik kalean, lagun artean... Heldu zaigu oporrez gozatzeko momentua, iratzargailua itzaltzeko, erlojuari minuturo ez begiratzeko, sakelakoa amatatzeko. Hau da gozamina hau!

Eguzki tokietara, mendira, baserri-etxeren batera edo beste edonora joateko planak dira nagusi. Denek egin nahi dute alde herritik, baina badira bertan geratzea aukeratzeko dutenak ere! Guztioi, zera opa dizuet: opor onak igaro!

"Norberak egin dezala bere aukera: opor onak igaro!"



GOIENA

Ohi baino jende gutxiago, baina giro ederra San Kristobalen

Aramaioarrek joan den domekan ospatu zuten San Kristobal eguna. Eguraldiak ez zuen lagundu eta "inoiz baino jende gutxiago" elkartu zen, Angel Mari Lopez de Bergara Uribarriko alkatearen arabera. 150 bat lagun elkartu ziren. Aspaldiko ohiturak dioenez, apaizak bedeinkatutako olioak belarrian igurtzeko aprobetxatu zuten askok, urte osorako belarriko gaitzak ekiditeko. Abesbatzak eta trikilariek ez zuten hutsik egin.

ELGETA



Martxoan gaiaren inguruan gurasoekin egindako bileretako bat. | L.Z.

Arduratuta ludoteka zerbitzuarekin

Jaitsi egin da erabiltzaile kopurua, eta Udalak batzarra deitu du martitzenerako, 19:00etan

L.Z. | ELGETA

"Ez dira erabiltzaile aurreikuspenak bete, eta aurreikusitako erabiltzaile kopurura ez iristeak eragina izan du aurreikusitako diru-sarreretan". Oxel Erostarbe alkatearen hitzak dira. Esan du Udala arduratuta dagoela izan den erabiltzaile jaitsierarekin, eta zerbitzua ekonomikoki bideragarri egitea premiazko zat jotzen du. Interesatuei egoeraren berri emateko eta irtenbide posibleak adosteko, batzar irekia deitu du Udalak martitzenerako, hilak 17. "Hezkuntza batzordean asteen egin dugu balorazioa, eta batzar ireki horrekin balorazio hori herritarrekin konpartituko dugu. Datorren ikasturteari begira zerbitzua bideragarri egiteko zein egokitzapen egin daitezkeen adostu gura dugu".

Atzetik datorren kezka

Ardura ez da berria. Udalak hainbat bilera egin zituen otsailan eta martxoan guraso erabiltzaileekin. "Aurrekontuan jasota ez egon arren, egokitzapenak egin eta apiriletik ekainera zerbitzua mantentzea erabaki genuen", gogoratzen du Erostarbek, "baina izan den erabiltzaile kopurua aurreikusitakoa baino askoz ere txikiagoa izan da". Zaintza zerbitzuan, esaterako, erabiltzaile bakarra egon da maiatzetik ekainera —bost behar dira zerbitzua bideragarria izateko—. Eta ludotekan hileko kuota ordaindu dutenak izan dira urtarrilean 15, otsailan 20, martxoan 25, apirilean 8, maiatzean 10 eta ekainean 10. Eguneko erabiltzaile kopurua ere ez da aurreikuspenetara iritsi.

Barizelaren birusa gure artean da; gutxienez, zortzi kasu antzeman dira

L.Z. | ELGETA

Haurtzaroko gaixotasun klasikoa da barizela edo astanafarria, eta azken asteotan, Elgetan, gutxienez, zortzi kasu antzeman dira; guztiak haurrak. Barizela oso kutsakorra da, eta azkar zabaltzen da; izan ere, sintomak agertu aurretik da birusa kutsakorren.

Sintomak

Gorputz osora hedatzen diren granoak izan ohi dira lehen sintoma, eta horrekin batera azkura. Sukarra ere —ez oso altua— ager daiteke. Gomendioa da botikak hartzen hasi aurretik sendagilearengana joatea. Lehenengo eta behin, barizela kasua dela ziurtatu behar da.

Ferixak nortasun propioa behar duela uste dute antolatzaileek

L.Z. | ELGETA

Astlehenean egin zuten aurtengo Ferixa Nagusiaren inguruko balorazioa Baserritarren batzordean. Bertan emandako datuen arabera, uztailaren leku azokan 34 saltzaile, 26 artisau, makineria postu bat eta 85 abelburu egon ziren. Abereak izan ziren 24 idi pare, 22 behi, lau txakurkume, hiru asto, hiru txahal, bi behor, bi moxal eta idisko bat.

Batzordean aipatu zen Ferixa muntatzeko antolaketa "nahiko ondo eta azkar" joan zela, eta postu bakoitzak bere mahaia ekartzeak lana erraztu egiten duela. Hala, aurrerantzean bide horretatik jarraitzea erabaki zuten.

Hobetzeko neurrien artean, Ferixa orduetan ere zirkulazio mozketak egiteko aukera aipatu zuten batzordean. Neurri hori beharrezkoa ikusten dute postu batzuk errepide ertzean egoteak sortzen dituen arrisku egoerak saihesteko.

Ferixa amaitu osteko garbiketa lanak ere aipatu zituzten astleheneko batzarrean. Komeniko litzateke enpresa garbitzailearen lanaz aparte postu bakoitzak bere hondakinak kudeatzea.

Nortasun propioa eman

Baserritarren batzordean irten dako beste ideia bat izan zen etorkizunera begira garrantzitsua dela Elgetako Ferixa nortasun propioz janztea. Lehenengo pausoa litzateke Ferixaren helburuak finkatzea eta zenbait erabaki hartzea; artisau kopurua mugatzea eta saltzaileei preferentzia ematea, Ferixara etorriko den abereen mota klasifikatzea eta Ferixari nortasuna emango diona aukeratu: idiak, ganadu arraza baten aldeko apustua egin...

Batzordean gaia lantzen jarraitzeko konpromisoa hartu dute, eta baserritarren iritziak eta ekarpenak jasotzea dute helburu.



Bolatokiaren motxorra, gaur

Prest dute Salbadorko bolatokia; teilatua, eskaileak eta boloak bueltan bidaltzeko kanala egin dituzte. Bertan auzolanean aritu direnek gaur, barikua, egingo dute motxorra. Afari pasada egingo dute 20:00 aldera, baina lanon amaiera herritarrekin batera ospatzeko bolatokia probatzera etortzeko gonbita egin dute. 21:00etatik aurrera bolatoki berrituan bolotan egiteko aukera egongo da.

Afari begetarianoa eta ipuin kontalari saioa zapatuan Maialden

Entsalada epela ortuko produktukin, kalabazin pastela sagar saltsarekin, eta aza rollitua kus-kus, kinoa eta gazta freskoarekin betea. Maialde landetxetik zapatuko afarirako proposatzen duten menua da. Afalostean, gainera, ipuin kontalari saioa egingo du Amaia Arriaranek. Prezioa 27 euro da. Erreserba egiteko: 943 78 91 07.

Zapatuan irteera Mutrikura; domekan bisita lubakietara

Kantsatzeko mendi taldeak Mutrikura egingo du irteera bihar, zapatua. 08:00etan abiatuko dira Herriko plazatik. Eta etzi, domeka, Intxortako guda gunera bisita gidatua egiteko egongo da, domeka oro moduan. Interesatuek 943 71 89 11 eta 943 79 64 63 telefono zenbakietan edo turismo@debagoiena.net posta elektronikotan egin dezakete erreserba.

Eguenean, hilak 19, podologia zerbitzua erretiratuendako

Abuztuan ez da zerbitzurik emango; hala, uztailekoa azken kontsulta izango da udako etenaldiaren aurretik. Betiko moduan, interesatuek txanda hartu behar dute 943 76 80 77 (Nati) telefono zenbakira deituta. Podologoak, ohi duen moduan, arratsaldeko ordu-tegiarekin artatuko ditu bezeroak.

Uztailaren 29an egingo dituzte aurten Goimendiko jaiak

Santxao aurten laneguna izanik, uztailaren 29an (domeka) ospatuko dituzte Goimendiko edo Azurtzako jaiak. Egitaraua prest dute: bertsoan Jose Luis Gorrotxategi eta Jexux Mari Irazu ariko dira eta erromeria Izer eta Lutxurdixok egingo dute. Meza 11:00etan izango da eta soka-dantza, 12:00etan.

LEINTZ GATZAGA

Paintballean jardutera joango dira herriko gazteak bihar Arabara

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteak herriko gazteendako irteera antolatu du biharko. Paintballean jardutera joango dira Galarretako jolasgunera (Araba). 09:30 inguruan Gatzagatik atera eta 10:30 aldera hasiko dira jolasean. Behin bukatutakoan inguru hartan bazkalteko asmoa dute, eta, hala, egun

-pasa dotorea egin. Orain arte umeendako antolatu izan dituzte ekintza gehienak Gurelekoek, baina gazteekin ez daudela ahaztuta erakutsi dute.

Talo tailerra hilaren 21ean

Bestalde, hurrengo zapatuan, hilak 21, talo tailerra egingo dute neska-mutikoekin. Herriko hain-

bat lagunek irakatsiko diete txiki-ekielan egin taloak, eta plantxak kalean jarrira jardungo dute lanean. Behin jatekoa gertatuta afari-merienda eginda bukatuko dute arratsaldea. Gureleko kideek jakinarazi dute aurrez izena ematea komeni dela zenbat osagai erosi jakiteko "batez ere zenbat kilo irin".

Uztaila bukatu baino lehen Dorleta ingurura gaua pasatzera joatea umeekin aztertzen dabilta guraso elkarteok. Hala erabakiz gero jakinaraziko dute.

Astlehenean dinamizatzailea izango da KZgunean

Astlehenean, hilak 16, Aitor Madrid dinamizatzailea izango da KZgunean (16:00-20:00). 16 urtetik gorako herritarrei ikastaro motzak eskainiko dizkie, tartean sare sozialen gainekoak —Facebook, Twitter...— eta Googlek eskaintzen dituen tresnen gainekoak. Internetek eragindako zalantzak ere argituko ditu.

Haurren finalerdiak jokatuko dituzte domekan

Dorleta Pilota Txapelketako azken partiduak jokatzen dabilta uztaileko domeketan. Etzi, haurren finalerdiak izango dira eta ondorengo domeketan, beteranoen arteko partiduak.

Hala, iraileko Andramaixa jaietan jokatuko dituzten finaletarako izenak erabakita geratuko dira.

PILOTA**Mendizabalek urtebete beteko du profesional moduan, Antzuolan**

X.U. | ANTZUOLA

Aitor Mendizabal antzuolarrak urtebete egingo du pilotari profesional moduan, Aspe enpresan, eta urteurrena ospatzeko duela urtebeteko hitzordu berera bueltatuko da, Antzuolako jaientara. Berez, Zarautzen egin zuen debuta, eta handik gutxira jokatu zuen herriko jaietan. Hala, domekan pilotari profesional bezala gozatu ahal izango dute pilota-zaleek Antzuolan.

Domekan, 17:00etan

Domekako jaialdiko lehenengo partiduan jokatu dute Ongayk eta Ladis Galartzak Gorkaren eta Larrinagaren kontra. Eta partidu nagusian jokatu du

Mendizabal III.ak. Laskurain soraluzetarrarekin bikotea osatuta, Aritz Lasa eta Zabaleta izango dituzte aurrean. Sarre-
ren erreserba egiteko, deitu 661 25 90 09 zenbakira.



Aitor Mendizabal. | GOIENA

ATLETISMOA**Amestutako salto barik, sekulako esperientzia**

Maialen Axpe 24. sailkatu da munduko junior mailako atletismo txapelketan, Bartzelonan

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Amestutako emaitzarik lortu ez badu ere, Maialen Axpek (Arrasate 1993) nekez ahaztuko du egunotan Bartzelonan bizi izan duen esperientzia: "Sekulakoa izan da mundu mailako junior mailako atleta onenekin lehiatzea. Egia da ez dudala aurtengo saltorik onena egin, marka hobea egiteko gauza naizela, baina ez dut nahi bizipen hau horretara mugatzea. Nire ondoan nituen atletek zela salto egiten zuten ikusita ere asko ikasi dut, gozamenaren izan da", adierazi zigun atzo Bedoñako gazteak, goizeko pertika saltoko sailkapen fasetik kanpo geratu ostean.

Haren entrenatzaile Jonathan Perez penatuta zegoen, ondo dakielako Axpe zer egiteko gauza den: "Nik badut pena apur bat, finalerako sailkatzeko muga 4.05 metroan geratu delako, eta Maia-

len gauza delako salto hori egiteko. Baina bera pozik badago ni ere pozik nago, salto ona egiteko elementu askok egin behar dutelako bat, eta beti ez da posible izaten".

Izan ere, Maialen Axpek ondo baino hobeto ezagutzen ditu Euskal Herri eta Espainia mailako txapelketak. Aurten txapelketa horietan erakutsi du ez duela kontrariorik, baina berak onartu moduan, Munduko Txapelketa ez da gauza bera: "Guretako dena zen berria, eta halakoetara ez gaude ohituta. Baina, esperientzia oso aberasgarria izan da, gauza asko ikasi dut.

3,85eko markarekin, 24.a

Emakumezkoen pertika saltoko kanporaketa fasea atzo goizean jokatu zuten, 09:30ean hasita: "Aurreko egunak normal bizi izan ditugu, ez dugu apartekorik



Maialen Axpe saltoetako batean. | ARGAZKIAK: JONATHAN P.

egin. Gure txapelketa goizeko lehenengo orduan zen, eta gorputza ordutegi horretara ohitze-ko goiz samar jaiki izan gara. Egunean zehar, berriz, entrenatu eta beste atletismo saio batzuk ikusten ibili gara".

Atletismoaren nondik norakoez jabetu ahal izateko, martitzeneko entrenamendu saioan Axpe 4,10 metroko saltoa egiteko

FUTBOLA**Ipintzako udako futbol torneoko finalak jokatu dituzte gaur, 19:00etan**

X.U. | BERGARA

Udako Ipintzako futbol txapelketako finala jokatu dute gaur, egubakoitza, Getokuak eta Beti Gorri taldeek. Finala 19:00etan hasiko dute, eta ondoren egingo dute sari banaketako ekitaldia. Bi talde horiek finalerdietan Pati Goxuak eta Badulake taldeak kanporatu zituzten. Getokuak

4-1 hartu zuen mendean Pati Goxuak, eta Badulake, berriz, galduta geratu zen kanpoan.

Nesketan, Plaus nagusi

Eguazten iluntzean jokatu zituzten emakumezkoen finalak, eta Arrasateko Plaus taldeak 6-0 irabazi zion Ou Pitxu Ou taldeari.

Aretxabaletako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

Gurea
TABERNA
Lotoak eta
kinielak

Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64



hemen bada
giro!

IOSU
taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08



Etortri eta dastatu gure pintxo goxo-goxuak astelekuaretan

URBALTZ
taberna

Mitarte 19 - 20550
ARETXABALETA





Jonathan (erdian) eta Maialen espedizioko kideekin.



Maialen, munduko errekorra duen Angelica Bengsonekin.

zen. Hori ikusita gustura geratu ginen". Momentuan lesioaren mamuak uxatu bazituzten ere, egun seinalatuan igarri zuen Maialenek orpoa ez zuela behar den moduan: "Burua ez duzunean erabat kontzentratuta, eta lesio bati bueltak ematen ari zarenean oso zaila da txapelketa biribila egitea".

"Sartu indar handiagoz"

Hitzordu handian 3,65eko marka bigarren ahaleginean gainditu zuen Axpek, eta entrenatzailea etengabe ari zitzaion esaten indar handiagoz sartzeko jautsira: "3,95eko lehenengo ahalegina oso ona egin du, gutxiatik ez du gainditu, eta bigarrenen ez du zortirik izan; haizea kontran ez du salto ona egin, eta hirugarrenean, berriz, indar handiz sartu da, baina behetik gora, listoia aurretik eraman du". Hala, Arrasatekoak 3,95eko markarekin konformatu behar izan zuen, sailkapen orokorrean 24. postuan geratuta: "Beno, mundu mailako rankingean Maialen 32. postuan zegoen, eta orain 24. postuan geratu da. Aurrerapausoa egin du".

Datozen egunak ondo gozatu nahi ditu Maialenek: "Zapatuan izango dira pertikako finalak, eta ez dut hitzordu hori galtzeko asmorik!", zioen barrez. Abuztuan, berriz, atletismo kontuak alboratu eta atseden hartzeko asmoa du, merezitako oporrak hartu. Astelehenean, *Harmailatik* saioan izango dira Arrasateko pertigistak (21:30).

gauza izan zen, pentsa, salto horrekin sailkatuta egongo litzateke. Jonathan Perezek eman dizkigu xehetasunak: "Beldur ginen, joan den astean Mojategin entrenatzen min hartu zuelako eskuin hankako orpoan. Errenka ikusten nuen, eta entrenamenduko hasierako saltoak txarrak izan baziren ere, oso ondo amaitu zuen lan-saioa, 4,10eko saltoa egitera iritsi

ESANAK

"Ondoa nituen atleten saltoak ikusten ere asko ikasi dut"

MAIALEN AXPE | ATLETA

MENDI BIZIKLETA

Gaueko mendi bizikleta martxa antolatu dute Bergaran abuztuaren 18rako; izen-ematea zabalik da

Abuztuaren 18an egingo dute Bergaran lehenengo gaueko mendi bizikleta martxa. Izen-ematea zabalik dago (12 euro), ibilbideak 31 kilometro izango ditu, eta ez du aparteko zailtasun teknikorik izango. Hori bai, gauez egiteak zailtzen du proba. Zaildu, eta edertu. Gehienez, 150 lagunendako toki egongo da. Informazio gehiago, basqueadventure.com helbidean.

MENDIA

Pol-Pol elkarteak Ehun Miliak proban egongo diren atletak animatzera joateko gonbita egin du

Gaur, egubakoitza, hasiko dute Euskal Herri mailan egiten den mendi lasterketa gogorrena, Ehun Miliak ultratrail proba. Tarte batean Debagoienetik pasako dira -gaur iluntzean, Trekutzetik hasi eta Hirukurutzetaraino, Gorlatik pasatuz-. Gorlan bertan izango dira Pol-Poleko lagunak lanean, han egongo den anoa postuan eta txip kontrolean. Ibarreko atletak ere izango dira.

FUTBOLA

Mondrak batzar orokorra egingo du datorren martitzenean, uztailak 17, Kulturaten

Mondra Futbol Taldeak bazkideei dei egiten die uztailaren 17an, martitzena, Kulturaten egingo duten batzarrera joateko. 18:30ean izango da lehenengo deialdia, eta 19:00etan bigarrena. Batzarrean landuko dituzten gaien artean daude otsaileko batzarreko akturen onarpena, iazko urtearen balantzea, kirol proiektuaren aurkezpena, eta ekonomikoki kluba zelan dagoen ere azalduko dute.

ARETO FUTBOLA

Bihar goizean hasiko dute 24 orduko areto futbol txapelketa Zaldibarren; etenik gabe jokatu dute

Txapelketan izena eman duten talde kopuruaren arabera antolatuko dituzte ordutegiak 24 orduko torneorako. Hala, antolatuzaileen asmoa da txapelketa bihar goizean hastea, eta seguruenik, zapatu goizaldean jokatu dute finala. Horrekin batera, barra bat jartzeko asmoa dute Zaldibarren, partiduetan giro apur bat egon dadin.

ETXETRESNA ELEKTRIKOETAN PREZIO BEREZIAK*



FAGOR HOZKAILU konbinatua, No Frost (FFK6735X)

Altzairu herdoilgaitzeko atekak

- LCD touch pantaila interaktiboa atean
- Hozkailuaren eta izozkailuaren temperaturaren erregulazte independentea
- Haragi eta arrainendako Multifresh kaxa
- Ateak itxeko sistema automatikoa

Tarifa:

779€

PROMOZIOA:

599€



FAGOR GARBIGAILUA (F-7212X)

Altzairu herdoilgaitzekoa

- 1 eta 7 kilo artean
- 1.200 b/min
- Kargaren araberako kontsumo aldakorra
- Programa azkarrak (15 eta 30 minutu) eta mistoa (45 minutu)
- Display digitala

Tarifa:

629€

PROMOZIOA:

424€



FAGOR ONTZI GARBIGAILUA (LVF13X)

Altzairu herdoilgaitzekoa, hatz marken aurkako tratamenduarekin

- Potentzia akustikoa: 48 dB(A)
- 12 litroko ur kontsumoa
- Display digitala
- Kontsumo aldakorra
- Garbitzeko 6 programa

Tarifa:

539€

PROMOZIOA:

406€



FAGOR KANPAIA (9CFM60N)

Kanpai bertikala

- 60 cm-ko apaingarri bertikala
- Touch Control, kontrol elektronikoa
- 3 ateratze maila. Displaya, funtzioena eta filtroen saturazioa adierazteko.
- Argiztatze halogenoa eta filtro modular multikapa garbigarria
- Denbora programatzeko timer-a

Tarifa:

499€

PROMOZIOA:

407€



FAGOR LABEA (6H-760A X)

Altzairu herdoilgaitzekoa

- Pirolitikoa
- Plus multifuntzioa
- 8 egosketa-programa
- Kearen filtro katalizatzailea

Tarifa:

589€

PROMOZIOA:

424€



FAGOR PLAKA (IF - 3BS)

Biselatua

- 3 Plus indukzio-zona
- 28 cm-ko XL eta 3x6 kW-ko fokua
- 12 potentzia-maila, kontrol digitalarekin
- Potentzia osoa 7x2 kW

Tarifa:

569€

PROMOZIOA:

390€

* Sustapen honek uztailaren 31ra arte balio du.

SIMS SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak



BERGARA

Aitziturri 4, 193 posta-kutxa

Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49

E-posta: bergara@servimasa.com

LEZO

103 industria poligonoa

Tel.: 943 52 05 00 Faxe: 943 515757

www.servimasa.com

blum FRANKE



LOGISIETE KESSEBÖHMER

**Jar ezazu zure autoa
puntu-puntuan
eta ondo
pasa oporrak**


**bateria
argiztapena
aire girotua
iragazkiak
balaztak
gurpilak
olio nibelak...**



ALMACENES LASCAR

Pneumatikoak • Olio aldaketak • Garbiketak

Amillaga 32 • 943 76 10 38 / 943 76 19 11 • Bergara



BERGARA
PNEUMATIKOAK

- Olio aldaketak
- Mekanika azkarra
- Garbiketa

Amillaga 6 BERGARA - Tel.: 943 763627
E-posta.: bergarapneumatikoak@gmail.com



*Autoen Kristaldegia
Kristalen muntaia, salmenta eta konponketa
Turismo, Furgoneta, Kamioi eta Autokarra
Aseguru konpainiekin kontzertatua*

DESA CRISTAL

LAMINA SOLAR BAIMENDUAREN INSTALAZIOA

Tailerra eta bulegoak:

Santalaitz, 6-5. Pab. / 83 Posta-kutxa

Tel.: 943 76 36 09 - Faxes: 943 76 73 45 - BERGARA



GARAJE BERRIA

Mekanika, elektrizitatea eta karrozeria
Amillaga 49 • 943 76 22 43 • Bergara

ION AUTOAK 

Mekanika • Karrozeria • Pneumatikoak • Garabi zerbitzua

Amillaga 36 • 943 76 47 49 • Bergara

MARKIEGI autoak 



Leizeaga, 1 • 943 76 35 09 • BERGARA

markiegiautoak@telefonica.net
www.markiegiautoak.com

Murillo Garajea



Leizeaga 4 • 943 76 13 84 • Bergara



TXOMIN GARAJEA

Eskaintza bereziak pneumatikoetan!

Lizarraga auzoa 8 • 943 78 70 77 • Antzuola

KULTURA

Goikobaku, Turinerako prest

- ▶ 14 eta 17 urte bitarteko 13 abeslari arrasatear joango dira Europa Cantat jaialdira
- ▶ Antolatzaileek bost mila abeslari espero dituzte Italiako jaialdi ezagunean, hilaren 31n

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Urduritasun eta ilusio egunak ari dira bizi izaten Goikobaluko gazteak. Izan ere, uztailearen 31tik abuztuaren 5era abesbatzako 13 kide Italiara, Turinera, joango dira Europa Cantat jaialdi ezagunaz gozatzera.

Maletak egiteke dituzten arren, Bilbo-Milan hegaldia hartzeko prest daudela kontatu digute Goikobaluko neskek Goienara egin dituzten bisitan.

Jaialdia Europako herrialde desberdin batean egiten da hiru urtean behin; aurten Turinen egingo da. Mundu osoko kantariak, abesbatza zuzendariak eta musikagileek parte hartzen dute antolatzen diren 50 tailerretan. Arrasateetik 14 eta 17 urte bitarteko kantariak joango dira Rakel Murgiondo Goikobaluko zuzendariarekin. Bertan, izpiritual beltzen gospel tailer batean parte hartuko dute. Tailer horietan, estilo askotariko musika lantzen da: klasikoa, folka, popa, rocka, gopela, musikalak... "Koru moduan bazoaz, kontzertu bat eman behar duzu jaialdian eta selekzio bat pasatu, baina, gure taldetik 13 bakarrik goazenez, ez gara abesbatza moduan arituko. Nahiz eta talde moduan izena eman dugun, ez gaituzte selekzio batetik pasatu, zuzenean gospel ikastarora sartu gaituzte", nabarmendu du Murgiondok.

Graves-en gidaritzapean

Gazteek oso gustuko dutela gopela esan digute eta Ameriketako Estatu Batuetako Denise Graves izpiritual aditua izango dutela irakasle Italiako egonaldian kontatu digute. "Oso pozik gaude, esperientzia berria da, eta atzerrian, gainera. Gospel estiloko



Goikobalu Gaztek Bartzelonara egindako irteeran ateratako argazkia. | GOIKOBALU

ESANAK

"Kantatzerakoan segurtasun handiagoa izaten ikasiko dute"

RAKEL MURGIONDO | ZUZENDARIA

ikastaroan parte hartuko dugu, eta musika hori gustuko dugu; baina, era berean, urduri samar gaude, ingelesez moldatu beharko dugula eta irakaslearekin. Ezezagunekin abestea ere erronka izango da guretzako", diote neskek.

Zuzendariak kontatu digu lehen aldia dela horrelako aukera aprobetxatu eta atzerrira joango direna: "Neuk animatu ditut. Entzun-

da eta irakurrita neukan oso esperientzia polita zela, eta urtero aukera pasatzen uzten nuen. Aurten, beste edozein arrazoi berezirik gabe, animatu nintzen antolaketari ekitera eta gazteak animatzera. Ez dut aurrez joan den beste abesbatzarik ezagutzen hemen", dio Murgiondok.

Kantatzeko orduan, besteak beste, segurtasun handiagoa iza-

ten ikasiko dutela dio. Etxeko lanak eginda joango direla azaldu digu: "Sei partitura landuko ditugu aurrez, Turineko musika-denda baten bitartez lortu ditugu-eta. Beste biak inprentaz kanpo omen daude, eta antolatzaileak noiz bidaliko zain gaude". Dena prest izateko, azken entseguak egiten dabilta asteon. Bidaia asko irakatsiko diela diote.



LEIRE ETXEZARRETA

"Abesten ikastea ere bada asmoa. Gainera, jende berria ezagutuko dugu, eta nola abesten duten ikusi eta ikasi: aberasgarria izango da guretzako".



IRAITZ GUTIERREZ

"Leku berri bat ere ezagutuko dugu, esperientzia berria, eta, gainera, bost mila pertsona batuko omen gara; jaialdira joateko gogotsu nago".



ANE OLALDE

"Egunero ez duzu horrelako aukerarik izaten; aprobetxatu egin behar dugu gauza berriak gertutik ikasteko eta ikusteko; ilusio handia daukat".



AMAIA ARANEGI

"Gure artean bidaia egiteko aukera polita ere bada, asko ikasiko dugu eta esperientzia polita izango da, Italiara ez gara-eta egunero joaten!".



MAIDER AZKARRAGA-URIZAR

"Talde berri batekin abesten ohitu beharko dugu; asko ikasiko dugu, zalantza barik. Bartzelonan izan ginen, baina inoiz ez European barrena".



aisia

HOTELES
DEBA

Markiegi 6
943 60 80 52

deba@aisiahoteles.com



- Zentzumenen bidezko **luxua**.
- **Chill Out terraza** estreinatzen dugu.
- **Musika zuzenean**.
- **Koktelak momentuan** prestatuta.

Egubakoitzetan eta zapatuetan 20:00etatik aurrera

Informazio gehiago: www.aisiahoteles.com



Arte Udalekuetako ikasleak komikigintza lantzen. | MAIALEN REGUEIRO

Hamar gaztetxo ibili dira bi astez Arte Udalekuetan

Herritar baten ideiatik sortu den proiektu aitzindaria da

MAIALEN REGUEIRO | OÑATI

Aurten, betiko udaleku irekiez gain, Arte Udalekuetan izena emateko eskaintza egin zuen Oñatiko Udalak. 11-13 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako proiektu aitzindaria da. Uztailearen 2an hasi ziren eta atzo bukatu zuten. Bi asteotan, marrazketa, argazkilaritza eta diseinu grafikoa landu dituzte, besteak beste, Oñatiko gaztelekuan.

Proiektu aitzindaria

Udaleku horiek herritar batek izandako ideia batetik sortu dira. Izan ere, herritar horri, kirola ez den eta artearekin erlaziona-

tutako beste esparru batzuk lantzearen ideia interesgarria iruditzen zitzaien. Hala, Udalak ideia hori hartu eta proiektu aitzindaria egitea pentsatu zuen. Horretarako, jende profesionala kontratatu barik, herriko artistengana jo dute, ideia guztion artean osatzeko.

Ikasleak

Arte Udalekuak Oñatiko 11-13 urteko gaztetxoentzat sortu ziren, eta, guztira, hamar lagunek hartu dute parte udalekuetan. Izan ere, ideia eman zuen herritarren ustetan, 11-13 urteko gazte txoak nagusiegiak dira Udalak

eskaintzen dituen udaleku irekietan parte hartzeko eta gaztegiak bestelako eskaintzetan izena emateko.

Horrez gain, herritar horrek azpimarratu zuen gaur egun egiten den eskaintza nagusia kirolari lotutakoa dela, eta kirola ez den beste esparru batzuk ere bultzatu behar direla.

Hainbat esparru

Uztailearen 2an hasi ziren Arte Udalekuak, eta atzo bukatu zituzten. Bi asteotan, marrazkigintza, argazkigintza, komikigintza, diseinu grafikoa eta serigrafia lantzeko aukera izan dute.

DATUA

10

IKASLE

Kopuru bat finkatu zuten, eta taldea sortzeko ez dute inongo arazorik izan. 11-13 urte bitarteko hamar ikasle ibili dira udaleku horietan.



URKO ARREGI

"Gustura egon naiz Arte Udalekuetan eta asko ikasi dut. Photoshopen gauzak egitea asko gustatu zait, esate baterako. Datorren urtean aurtengo aukera egonez gero, hartuko nuke parte".



JOAKIM EGAÑA

"Ni ere gustura egon naiz udaleku hauetan. Argazkiak kaxa batekin ateratzen eta Photoshopen gauzak egiten ikasi dut, eta argazkiak ateratzea izan da gehien gustatu zaidana. Datorren urtean ere emango nuke izena".



UNAI BARREIRO

"Ni ere gustura egon naiz Arte Udaleku hauetan. Ikasi dudana kaxa batekin argazkiak ateratzea izan da eta hori asko gustatu zait, baina Photoshopen ere gustura ibili naiz. Datorren urteari begira ere hartuko nuke parte".

Martxan da Udako Argazkien VIII. Goiena Lehiaketa

Parte-hartzaileek irailaren 14a baino lehen entregatu beharko dute egindako argazkia

M.R. | ARRASATE

Uztailearen 2an hasi zen eta irailaren 14a izango da argazkiak entregatzeko azken eguna. Par-taide bakoitzak, gehienez, bost argazki aurkez ditzake; argazki bakoitzarekin, egilearen izen-abizenak eta herria, harremantarako telefonoa, argazkia noiz eta non ateratakoa den eta zer eta nortzuk agertzen diren adierazi beharko da.

Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo era digita-

lean. Argazkiak eta datuak argazkiak@goiena.com helbidera bidali beharko dira, edo Goienara eraman. Azken hori eginez gero, kartazal, CD edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan entregatu beharko da.

Nobedadeak

Aurtengo lehiaketarako bi nobedade daude: alde batetik, irakurle eta ikusleei aukera emango zaie argazki onenari botoa ema-



2011ko sari nagusiaren irabazlea. | YERA SANCHEZ

teko <http://goiena.net/blogak/argazkiak> blogean.

Bestalde, Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehia-

ketan. Horretarako, Twitterren, [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, argazkiaren deskribapen

bat eginda. Facebooken, aldiz, <https://www.facebook.com/UdakoArgazkiak> orriaren horman argazkia partekatuta, argazkiaren deskribapen bat eginda.

Sariak

Bost sari banatuko dituzte: lehen saria KB Photoestudiok emango duen argazki-kamera izango da; bigarrena, Arrasate Bidaiek emandako asteburu bateko egonaldia bi pertsonarentzat Kantabriar; eta hirugarrena, afari edo bazkari bat bi pertsonarentzat Gure Ametsa jatetxean.

Herritarren saria izango da bi laguntzako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Debako Aisia hotelean eta boto emai-leentzako saria, munduko hainbat kafe ezberdinen otarrea, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ASTEAGA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA 13

12:30 Magazinea
13:15 Zorion Agurrak
13:20 Walker
13:42 Onein
14:07 Beranduegi.tv
14:32 Musikaz Gain: Lauroba
14:42 Zorion Agurrak
14:47 Berriak
15:07 Eguraldia
15:12 Planik bai?
15:22 Bizitegia
15:48 Berbaz
16:56 Berriak
17:16 Eguraldia
17:21 Planik bai?
17:41 28.Klip
18:04 Harira
18:36 Tertulia
19:36 Beranduegi.tv
20:00 Berriak
20:20 Eguraldia
20:25 Planik bai?
20:50 Harira
21:22 Berriak
21:42 Eguraldia
21:47 Musikaz Gain: Lauroba
22:00 AsteON
22:35 Tolosandblues
23:12 Berriak
23:32 Eguraldia
23:35 Planik bai?
23:55 AsteON
00:16 Goierri Creation Center

ZAPATUA 14

10:00 Ipupomamua
10:30 Zorion Agurrak
10:35 28.Klip
11:00 Planik bai?
11:10 AsteON
11:45 Bizitegia
12:15 Berbetan
12:53 Onein
13:18 Berriak
13:33 Magazinea
14:33 Tertulia
15:33 Harira
16:05 Planik bai?
16:25 Zorion Agurrak
16:30 Berriak
16:45 Onein
17:06 Hamaika.bit
17:36 Goierri Creation Center
18:06 Bertso saioa
18:29 Zorion Agurrak
18:34 Berriak
18:49 Beranduegi.tv
19:09 Magazinea
20:09 Planik bai?
20:29 Walker
20:49 Harira
21:21 AsteON
21:56 Planik bai?
22:16 Tertulia
23:16 Magazinea
00:03 Tertulia

DOMEKA 15

10:00 Hamaika.bit
10:30 Bertso saioa
10:53 Zorion Agurrak
10:58 Onein
11:26 Magazinea
12:26 Bizitegia
12:56 Berriak
13:11 Onein
13:34 Berbetan
14:12 Tertulia
15:12 Zorion Agurrak
15:17 Berriak
15:32 AsteON
16:07 Walker
16:27 Berriak
16:42 Magazinea
17:42 Harira
18:14 Beranduegi.tv
18:34 Magazinea
19:34 Ikusmira
19:50 Berbetan
20:28 Zorion Agurrak
20:33 Bertso saioa
20:58 Magazinea
21:33 Goierri Creation Center
22:00 Berriak
22:15 Bizitegia
22:45 Beranduegi.tv
23:03 Magazinea

ASTELEHENA 16

12:20 Magazinea
13:05 Zorion Agurrak
13:10 Onein
13:35 Zorion Agurrak
14:08 AsteON
14:43 Berriak
15:03 Eguraldia
15:06 Zorion Agurrak
15:11 Bertso saioa
15:34 Ikusmira
15:52 Bizitegia
16:22 Ikusmira
16:38 Zorion Agurrak
16:43 Berriak
17:03 Eguraldia
17:06 Onein
17:26 Goierri Creation Center
17:51 AsteON
18:24 Zorion Agurrak
18:57 Berriak
19:17 Eguraldia
19:20 Magazinea
20:05 Berriak
20:25 Eguraldia
20:30 Harmailatik
21:15 Magazinea
22:00 Harmailatik
22:45 Berriak

MARTITZENA 17

12:30 Magazinea
13:15 Zorion Agurrak
13:20 Harmailatik
14:05 AsteON
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Harmailatik
15:53 Onein
16:18 Goierri Creation Center
16:43 Zorion Agurrak
16:48 Berriak
17:08 Eguraldia
17:11 Ikusmira
17:29 Bizitegia
17:59 Harmailatik
18:44 Beranduegi.tv
19:04 Hamaika.bit
19:34 Ikusmira
20:10 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Zorion Agurrak
21:05 Berriak
21:25 Eguraldia
21:28 Harira
21:58 AsteON
22:33 Musikaz Gain: Lauroba
22:44 Magazinea
23:29 Walker
23:49 Berriak

EGUAZTENA 18

12:15 Eguraldia
12:18 Magazinea
13:03 Zorion Agurrak
13:08 Harira
13:41 Beranduegi.tv
14:01 Harmailatik
14:46 Berriak
15:06 Eguraldia
15:09 Ikusmira
15:27 Onein
15:52 Goierri Creation Center
16:17 Berbetan
16:55 Berriak
17:15 Eguraldia
17:18 Harmailatik
18:03 Zorion Agurrak
18:08 Musikaz Gain: Lauroba
18:19 Beranduegi.tv
19:12 Azpeitiako Rallysprinta
19:47 Zorion Agurrak
19:52 Berriak
20:12 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Lehiaketa
21:15 Berriak
21:35 Eguraldia
21:40 Magazinea
22:25 Tertulia
23:25 Berriak
23:30 Eguraldia

EGUENA 19

12:20 Magazinea
13:05 Zorion Agurrak
13:10 Tertulia
13:40 Tertulia
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Hamaika.bit
15:38 Goierri Creation Center
16:03 Musikaz Gain: Lauroba
16:14 Ikusmira
16:30 Walker
16:50 Berriak
17:10 Eguraldia
17:13 Tertulia
18:13 Onein
18:33 Planik bai?
18:53 Altxor Txokoa
19:13 Zorion Agurrak
19:46 Zorion Agurrak
19:51 Berriak
20:11 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Planik bai?
21:20 Berriak
21:40 Eguraldia
21:43 Hamaika.bit
22:13 Walker
22:33 Planik bai?
22:53 Magazinea
23:38 Berriak
23:58 Eguraldia
00:23 Planik bai?
00:43 Berriak

ARRASATE IRRATIA

Arrasateko etorkizunari buruzko tertulia

Astero bezala, zapatuan eta domekan aste osoko gainbegiratu egingo dugu, 10:00etan. Horrez gain, Ubane Maderak aste honetan telebistan gidatutako tertulia eskainiko dizuegu asteburuan, 16:00etan: Arrasateko etorkizunari buruz arituko dira gonbidatuak.

Uda honetarako opari sorta interesgarria zozketan

Joan den astean egin bezala, zozketan parte hartzeko jolas bat proposatzen dugu. Hau da, interesatuta daudenek egun-pasa egiteko plan bat proposatu beharko dute. Parte hartzeko: deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira edo idatzi mezu bat: irratia@goiena.com edo @[arrasategoiena](https://twitter.com/arrasategoiena). Zorte on!



Alvaro eta Sonia

Alvaro Tabares eta Sonia Alonso uztailaren 14an Bergarako udaletxean ezkonduko dira eta ondoren Etxe-Aundi jatetxean ospatuko dute. "Bapo bazkaldu eta ederto pasatuko dugu! Zorionak eta muxu potolo bat, etxeko guztien partetik!".



Judith eta Lander

Judith Larrañaga eta Lander Larraudi uztailaren 14an ezkonduko dira. "Azkenean, heldu da eguna! Egun benetan zoriontsua izateko espero dugu, eta hemenik aurrerako egunak ere halakoak izatea! Irrikitan gaude egun hori zuekin bizitzeko! Zorionak, bikote!". Bergarako koadrilakoak.



Mario eta Bea

Uztailaren 14an, Mario Iglesias eta Bea Asenjo Fromistako (Palentzia) elizan ezkonduko dira eta ondoren familia eta lagunekin ospatuko dute. Dantza eta algarartearen bikain pasatuko dugu! Ondoren Thailandiara joango dira ezkonbidaiari, bestiek inbidiaz itxita! Guztion partetik, zorionak eta disfrutatu zeuen eguna!

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Zapatua, 14	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Domeka, 15	ETXEBERRIA	Zarugalde, 42, 44	943 77 16 30
Astelehena, 16	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Martitzena, 17	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Eguaztena, 18	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Eguena, 19	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Egubakoitza, 20	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz, 17	943 79 79 99
BERGARA			
Zapatua, 14	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Domeka, 15	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Astelehena, 16	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Martitzena, 17	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Eguaztena, 18	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguena, 19	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Egubakoitza, 20	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
OÑATI			
Zapatua, 14	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Domeka, 15	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Astelehena, 16	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Martitzena, 17	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguaztena, 18	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguena, 19	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Egubakoitza, 20	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
ARETXABALETAKO / ESKORITAZA			
Zapatua, 14	FRAILE	Herriko plaza, 10 (Are.)	943 79 21 99
Domeka, 15	FRAILE	Herriko plaza, 10 (Are.)	943 79 21 99
Astelehena, 16	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Martitzena, 17	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Eguaztena, 18	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Eguena, 19	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Egubakoitza, 20	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28

Farmazien eskuko telefonoetarako 2012 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehieneko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitia TICek kudeatuta (www.altitia.es).



Jose Angel eta Jone

Jose Angel Tena eta Jone Barquero, uztailaren 12an ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Ez zarete aurreratuko ezta? Ondo pentsatu duzue? Ondo pasatu eztei-bidaiari, eta patxo handi bat". Familiaren, koadrilaren eta, batez ere, Anerren eta Unairen partetik.



Nerea eta Dani

Uztailaren 14an Nerea Hernandez eta Dani Manzanos ezkonduko dira. "Ordua zen, e? Zorionak, bikote! Heldu da hainbeste espero genuen eguna. Pila bat muxu, zuen koadrilakuen partetik. Ondo ibili Thailandian!".



Uxue eta Ivan

Uxue eta Ivan zapatuan, hilaren 14an, ezkonduko dira Arantzazuko elizan. Ostean, bazkaria Etxe-Aundi jatetxean izango da. Zorionak, lagunaren eta familiaren partetik, eta oso ondo pasatu eguna!



Andoni eta M. Jose

Andoni Romero eta M. Jose Boyerok 25 urte betetzen dituzte ezkontuta. Uztailaren 14an ospatuko dute familia osoarekin batera. Beste 25 urtez zoriontsu izan zaitezte!

OROIGARRIA

Arantxa Alzelai Perez

2012ko uztailaren 8an hil zen, 64 urte zituela.

*Izar berri bat sortu da zeruan.
Muxu handi bat.*Miren eta Andoni.
Bergaran, 2012ko uztailaren 13an.

OROIGARRIA

Arantxa Alzelai Perez

2012ko uztailaren 8an hil zen, 64 urte zituela.

*Zure irribarra, itzali da,
zure umorea, ilundu,
zure esanak, lausotu.
Baina, zure oroitzapena
bizipoza dugu, lagun.*Zure lagunak.
Oñatin, 2012ko uztailaren 13an.

OROIGARRIA

Jon Corbal Romera

Luis Ezeizako ikaslea

Eskoriatzan hil zen 2012ko uztailaren 6an, 3 urte zituela.

Luis Ezeizako guraso, ikasle, irakasle eta jangelako langileek bat egiten dugu Javi, Maria eta Maiterekin bizitzen ari diren momentu latz honetan.

Luis Ezeiza eskola.
Eskoriatzan, 2012ko uztailaren 13an.

URTEURRENA

Mikel Pagaldai Aguiriano

2011ko uztailaren 14an hil zen, 38 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 15ean, 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokian ospatuko da.

*Zure sustraiak gure bihotzean betiko errotu dira.*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA


Enrique Aguilar Casas

2011ko uztailaren 14an hil zen, 48 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan, uztailaren 14an, 19:00etan, Arrasateko San Andres auzoko Jasokundeko Amaren elizan ospatuko da.

*Urak dakarrena urak daroia,
zuk utzitakoa gurekin geldituko da.*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Eugeni Ormazabal Aldai

2011ko uztailaren 8an hil zen, 96 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 15ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Marisol Diaz Martin

2011ko uztailaren 18an hil zen, 75 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 15ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

*Zuk erakutsitakoak bizirik dirau.
Eskerrik asko, ama.*

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jesus Altuna San Miguel

2011ko ekainaren 28an hil zen, 82 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 15ean, 10:30ean, Bergarako Elorregi auzoko San Prudentzio elizan ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Angel Zabaleta Larrañaga

2011ko uztailaren 10ean hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 15ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

*Hutsune handia laga badiguzu ere, zuk erakutsitako bizitzeko indarra eta kementa bidaide izango ditugu beti.*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

German Barrena Zubia

2012 uztailaren 4an hil zen, 50 urte zituela.

Haren emazte Agurtzane Bengoak, alaba Maiane eta Iratxi eta sendi guztiak eskerrak emanez, hileta elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko.

Ondra meza zapatuan, uztailaren 14an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan ospatuko da.

Oñatin, 2012ko uztailaren 13an.

ESKER ONA

Tere Irazabal Gorosabel

Miguel Galdosen alarguna

Oñatin hil zen 2012ko uztailaren 1ean, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Ondra meza zapatuan, uztailaren 14an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan ospatuko da.

Oñatin, 2012ko uztailaren 13an.

ESKER ONA

Benita Gorosabel Belar

Angel Mikeo Azpiroren alarguna —Goian bego—

Uztailaren 6an hil zen, Angiozarren, 84 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren.

Seme-alabak: Jose Angel eta Loinatz Lasa, Xabier eta Idoia Beitia; biloba: Eñaut. Eskerrak eman nahi dizkizuegu egun hauetan bidelagun izan zaituztegun ahaide eta lagun guztioi.

Leken aihenari bidea erakusten zenbiltzan zu zeu haizea bezain aske bihurtu zarenean.

Angiozarren, 2012ko uztailaren 13an.

ESKER ONA

Pantxika Igartua Arruti

Bergaran hil zen 2012ko uztailaren 5ean, 98 urte zituela.

*Inork badu zerua irabazita, hori zeu zara.
Beti izango zara gure bihotzean.*

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali dizkizugu, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2012ko uztailaren 13an.

HILDAKOAK

Pantxika Igartua Arruti. Bergaran, uztailaren 5ean. 98 urte.**Benita Gorosabel Belar.** Angiozarren, uztailaren 6an. 84 urte.**Jon Corbal Romera.** Eskoriatzan, uztailaren 6an. 3 urte.**Aquilino Apaolaza Velez de Mendizabal.** Arrasaten, uztailaren 6an. 90 urte.**Arantxa Alzelai Perez.** Oñatin, uztailaren 8an. 64 urte.**Agustin Frutos Tena.** Arrasaten, uztailaren 10ean. 84 urte.**Teresa Lete Ugarte.** Arrasaten, uztailaren 11n. 80 urte.

Babeslea:



Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzeaAmilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

ARRASATE Santa Marinako jaiak

Antzuolan ez ezik, gure herrietako auzoetan ere izango da zertaz gozatu: Arrasateko Santa Marina auzoan, gaur, umeendako jolasak eta txokolate-jana egingo dituzte; bihar, 14:00etan, paella-jana egingo dute eta gauean Nuevo Ciclon orkestraren dantzaldia; domekan, umeendako jolasak eta meza nagusia egingo dituzte, besteak beste.

Gaurtik domekara, Santa Marinaran.



GOIENA



GOIENA

ARRASATE Jupiter Jon bihar gaztetxean

Jupiter Jon laukoteak kontzertua eskainiko du bihar Arrasateko gaztetxean. Lisabö, Akauzazte eta beste hainbat taldetan ibilitako musikariek osatzen dute taldea. Erritmo tribalak eta post-rocka erabiltzen dute ikuslea euren mundura erakartzeko.

Bihar, zapatua, Arrasateko gaztetxean, 22:30ean.

MUSIKA**BERGARA** Berumuga: Txus Blues & Jose Bluefingers

Bartzelonako Txus Blues & Jose Bluefingersen kontzertua egongo da gaur Bergaran. Umorez betetako bertsoak, moldaketak eta bikoteak konposatutako abestiak entzun ahal izango dira.

Gaur, Espolotan, 22:00etan

BERGARA Garate eta Shut up! taldeak Laino Skate parkean

Garate bergararrak eta Shut Up! taldeak kontzertua eskainiko dute gaur Bergarako Lainon.

Gaur, Laino skate parkean, 22:30ean.

BERGARA Udal Musika bandaren kontzertua

Udal Musika Banda kalejiran irtengo da etzi. Ondoren, kontzertua eskainiko du pilotalekuan.

Etzi, domeka, Udal pilotalekuan, 12:30etan.

ANTZERKIA**ARETXABALETA** 'Pronostiko erreserbatua', Oihulari Klown taldearen eskutik

Oihulari Klown taldeak *Pronostiko erreserbatua* antzezlan eskainiko du Aretxabaletako Herriko Plazan, eguaztenean. Ikuskizun umoretsu horretan, sexualitatean adituak diren Puxika eta Andurixa pailazo-medikuak Aretxabaletako kaleetan gora eta behera ibiliko dira, hala behar dutela uste duten herritarrei errekonozimenduak eginda. Adi, beraz!

Uztailaren 18an, eguaztana, Herriko Plaza 19:00etan.

JAIK**OÑATI** Trianako jaiak

Oñatiko Triana auzoan jaiak ospatuko dituzte gaurtik domekara. Gaur, 19:00tan jaitziko da Asto-trasto, eta ondoren, txorimaloak eta Luhartz taldearen dantzaldia egongo dira, besteak beste. Bihar, bestetik, umeendako marrazki saioa egongo da. Jai batzordeak poteoa egingo du eta magia saioa ere egongo da Josu Zubiarekin. Etzi, auzoko hildakoen aldeko mezaren ondoren, luntxa

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

UZTAILA 13
UZTAILA 19

eta herri bazkaria egingo dituzte. 18:30ean, Makulu Ken taldeak disko aurkezpena egingo du.

Gaurtik egubakoitzera, Trianan.

ANTZUOLA I. Txakoli eguna

Mankomunitateak antolatutako jardunaldi gastronomikoen barruan egingo dute I. Txakolin Eguna. Eskualdeko hiru ekoizleek parte hartuko dute: Oñatiko Upainek eta Arrasateko Kataidek eta Otxiak.

Etzi, domeka, Antzuolan 10:30ean.

IRTEERA**ELGETA** Intxortako guda gunera bisita gidatua

Domeka honetan ere bisita gidatua egingo dute Intxortako guda gunera. Gutxienez 12 laguneko taldeendako dira bisita gidatu hauek. Beste edozein egunetan ere bisitak antolatzen dira, baina beharrezkoa da, kasu horretan, aurrez erreserba egitea.

Etzi, domeka, Espaloitik, 10:30ean.

HITZALDIAK**ARETXABALETA** Asisko Urmenetaren berbaldia

Komikigile nafar ezagunak eta *Gartxot* filmaren zuzendariak berbaldia eskainiko du. Filma egun baten baino gehiagotan eskainiko dute astean zehar, baina martitzenean, Urmenetaren berbaldiaren ondoren egongo da.

Uztailaren 17a, martitzena, Arkupeko Zاراia aretoa 20:00etan



GOIENA

ESKORIATZA Tom Tom Makuts eta Mikel Urdangarin

Errekan Gora ekimenaren barruan beste bi kontzertu izango dira Eskoriatzan asteburuan. Hala, gaur, Tom Tom Makuts ariko da Gernika plazan. Hip-hop akustikoa egiten du taldeak, baina jazzak,

funkak eta erritmo latindarrek indar handia dute euren erreperitorioan. Bihar, berriz, euskal musikari ezagun bat, Mikel Urdangarin, egongo da Azkoaga Enea hotelean.

Gaur eta bihar, Eskoriatzan, 22:30ean.

BESTELAKOAK**OÑATI** Aurrezpena eta energia-eraginkortasunaren karabana

Ibilgailu hibrido eta elektrikoaren erakusketa eta haurrendako bizikleta eta mini-autoen zirkuitua egongo dira, besteak beste plaza-aparkalekuan astelehenean.

Uztailaren 16a, astelehena, Plazako aparkalekua 11:00etan

ZINEMA**BERGARA** Zinema: 'Askatasunaren ibilaldia'

Aire librean eskainiko dute zinema, gaztetxeako patioan.

Uztailaren 17a, martitzena, Bergarako gaztetxean, 22:30ean.

ARETXABALETA 'Gartxot' filma

Gartxot euskal filma emango dute Arkupeko Zاراia aretoan: astelehenean, 17:00etan, martitzenean, 21:00etan eta eguenean, 21:00etan. Sarrera bi euro kostako da.

Datorren astean Zاراia aretoan.

ARRASATE 'Super 8' filma

Monterron parkean aire librean eskainiko dute zinema Udazabal ekimenaren barruan. 7 urtetik gorakoendako filma da.

Gaur, Monterron parkean, 22:30ean.

DEIA**OÑATI** Gaztelekua Herrijorran

Gaztelekuko prozesu parte-hartzailean parte hartzeko dei egin dute.

Uztailaren 18an, eguaztana, gaztelekuan 19:00etan.

ARRASATE KANDELA GAUA

Zaballako espetxe aurrean gaixo larriak askatzeko eskatuko dute. Gaur pasatzera joateko, egubakoitzean 19:00etan Arbolapetan elkartuko dira. Zapatuko kontzentrazioa joateko, berriz, 10:00etan Arbolapetan.

Gaur, egubakoitza, Arbolapetan 19:00etan.

KIROLA**ELGETA** Mutriku zeharkatzen

Irteera egingo dute Elgetatik



GOIENA

ARRASATE Iñaki Mataren 'H,oztopo' ikuskizuna

H,oztopo ikuskizuna eskainiko dute gaur Arrasaten. Gurpil-aulkiaren bidez, tokiak, ametsak edo zailtasunak behatzera bultzatzen gaitu ikuskizunak. Iñaki Mata aktorearen eskutik dator, kale antzerkia gustuko duen aktore baten eskutik. Gaur, Biteri plazan, 20:30ean.

Mutriku aldera bihar, Kantsa-tzeke mendi taldearen eskutik. Bost orduko ibilbidea izango da eta prezioa bost eurokoa. Bi aukera egongo dira; bazkaltzen gelditzea edo bazkal ordurako etxera itzultzea. Animatu eta parte hartu mendi ibilaldian! Bihar, herriko plazan 8:00etan.

DEBAGOIENA Ehunmilak

Aurten Ehunmilak ultratrail probaren III. edizioa ospatuko da. Lasterketa gaurtik domekara

izango da eta Beasainen hasi eta bukatuko da. Guretik ere pasatuko da lasterketa. Hain zuzen ere, gaur, Bergaratik pasatuko dira lasterkariak; Trekutz aldetik sartu eta Hirukurutzetaraino ibilbidea egingo dute parte hartzaileek. Horiei, gainera, ez zaie jatekorik eta edatekorik faltako tarte horretan. Ian ere, hori Pol-Pol mendi taldearen ardurapean dago eta Altsazun jan-edan postua ipiniko dute. Gaurtik domekara.



GOIENA

BERGARA 'Beldurraren etxea' ikuskizuna

Hipo eta Tomax pailazoen ikuskizuna eskainiko dute gaur Munibe plazan. Denetarik gertatuko zaie Hipo garbitzaileari eta Tomax aguazilari; kantuek eta jolasek izango dute tartea ikuskizunean. Gaur, Bergarako Munibe plazan, 19:30ean.

ZINEMA

EIBAR**COLISEO****Hysteria**

Egubakoitzetik egunera: 22:30.
Zapatutan: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeketan: 17:00, 20:00.
Astelhehenetan: 20:30.

Las chicas de la sexta planta

Egubakoitzetik egunera: 22:30.
Zapatutan: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeketan: 17:00, 20:00.
Astelhehenetan: 20:30.

El Dictador

Egubakoitzetik egunera: 22:30.
Zapatutan: 19:45, 22:30.
Domeketan: 20:00.
Astelhehenetan: 20:30.

Tengo ganas de ti

Zapatutan: 17:00.
Domeketan: 17:00.

GASTEIZ**FLORIDA****Elefante blanco**

Egubakoitzetik egunera: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.

Moonrise Kingdom

Egubakoitzetik egunera: 12:00, 18:00, 20:15, 22:30.

Los cachorros y el código de Marco Polo

Egubakoitzetik egunera: 12:00, 17:30.

Siempre feliz

Egubakoitzetik egunera: 20:15, 22:30.

Ice Age 4

Egubakoitzetik egunera: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.

Muppets

Egubakoitzetik egunera: 12:00.

Los nombres del amor

Egubakoitzetik egunera: 18:00, 20:15, 22:30.

Lobos de Arga

Egubakoitzetik egunera: 12:00, 18:00, 20:15, 22:30.

La delicadeza

Egubakoitzetik egunera: 18:00, 20:15, 22:30.

GURIDI**3D-The amazing Spiderman**

Egubakoitzetik egunera: 19:45.

The amazing Spiderman

Egubakoitzetik egunera: 17:00, 22:30.

El dictador

Egubakoitzetik egunera: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Los muertos no se tocan nene

Egubakoitzetik egunera: 17:00, 22:30.

Las chicas de la sexta planta

Egubakoitzetik egunera: 18:40, 20:35.

El profesor Lazhar

Egubakoitzetik egunera: 18:00, 20:15, 22:30.

Blancanieves y la leyenda del cazador

Egubakoitzetik egunera: 17:30, 22:30.

Las nieves del Kilimanjaro

Egubakoitzetik egunera: 20:00.

Tengo ganas de ti

Egubakoitzetik egunera: 17:30, 20:00, 22:30.

Que esperar cuando estas esperando

Egubakoitzetik egunera: 17:30, 22:30.

GORBEIA**El dictador**

Egunera: 18:30, 20:20, 22:10.

Egubakoitzetik egunera: 19:45, 22:10.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:40.

Que esperar cuando estas esperando

Egunera: 17:50, 20:10, 22:30.

Egubakoitzetik egunera: 17:00, 22:30.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:30.

El pacto

Egunera: 18:20, 20:30, 22:40.

Egubakoitzetik egunera: 18:40, 20:35.

Project X

Egunera: 21:15.

Lucia de Lammermoor

Egunera: 20:30.

The amazing Spiderman

Egunera: 17:00, 18:45, 19:45, 21:30, 22:30.

Egubakoitzetik egunera: 20:00.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:00

3D - The amazing Spiderman

Egunera: 18:00, 20:45.

Egubakoitzetik egunera: 23:30.

Ice age 4

Egunera: 18:15, 20:15, 22:15.

Egubakoitzetik egunera: 20:15.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:15.

3D - Ice Age 4

Egunera: 17:15, 19:15, 21:15.

Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:30.

Tengo ganas de ti

Egunera: 17:00, 19:30, 22:00.

Egubakoitzetik egunera: 20:30.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:20.

El enigma del cuervo

Egunera, egunetan izan ezik: 19:50.

Blancanieves y la leyenda del cazador

Egunera: 22:10.
Egubakoitzetik egunera: 20:20.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:40.

Los intocables

Egunera: 17:40.

Sombras tenebrosas

Egunera: 20:30.

Intocable

Egunera: 22:40.
Egubakoitzetik egunera: 23:15.

Los vengadores

Egubakoitzetik egunera: 23:15.

Sombras tenebrosas

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 15:30.

Men in black

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 15:45.

BOULEVARD**Que esperar cuando estas esperando**

Egunera: 18:00, 20:15, 22:30.

Egubakoitzetik egunera: 20:45.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:45.

El dictador

Egunera: 18:20, 20:20, 22:20.

Egubakoitzetik egunera: 20:20.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:20.

Lobos del Arga

Egunera: 17:50, 20:00, 22:10.

Egubakoitzetik egunera: 20:20.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:40.

Elefante blanco

Egunera: 18:00, 20:10, 22:20.

Egubakoitzetik egunera: 00:30.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:50.

The amazing Spiderman

Egunera: 19:35, 18:15, 20:15, 21:00.

Egubakoitzetik egunera: 23:00, 23:45.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:30.

3D - The amazing Spiderman

Egunera: 19:30, 22:15.

3D - Ice Age 4

Egunera: 17:45.
Egubakoitzetik egunera: 15:45.

Ice Age 4

Egunera: 18:45, 18:45, 20:15, 20:45, 22:45.

Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:15, 16:45.

Tengo ganas de ti

Egunera: 17:30, 20:00, 22:30.

Blancanieves y la leyenda del cazador

Egunera: 22:00.
Egubakoitzetik egunera: 00:30.

Men in black III

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 15:30.

Intocable

Egubakoitzetik egunera: 00:45.

KRITIKA

**THE SEARCHERS** ★★★★★

Zuzendaria: John Ford.

Herraldea: Estatu Batuak.

Urtea: 2011.

Aktoreak: John Wayne, Jeffrey Hunter, Vera Miles.

Iraupena: 103 minutu.

Zinemaren gailurra

Donostiako Trueba zinemaren kopia digitalean eta jatorrizko hizkuntzan azpitoluekin Joh Forden *The Searchers* western zoragarria ikus daiteke. Filma zirraragarria da, bai kontatzen duen istorioarengatik, bai istorioa azaltzeko modu bikainagatik. Zuzendariaren pertsonaiengana eta western unibertsoa hurbiltzeko modua paregabea da. Komantxeek Ethan Edwardsen bi iloba bahitu dituzte, familiako beste kideak hil ondoren. Ethan bi mutil gazteren laguntzarekin nesken bila aterako da. Bilatze horrek urte askotxo iraungo du eta epe horretan gai desberdinak agertuko dira: arrazakeria, familiaren arteko loturak, arraza

desberdinen harremanak eta gatazkak, kolonoak babesgabeko lurraldeetan bizimodu berri bat hasi nahian, gizarte erregeletara moldatzen ez diren pertsonaiak eta abar.

Ethan Edwards, istorioaren protagonista nagusia, gizon bakartia da. Ez da moldatzen besteekin bizitzen ezta haien erregelak betetzen. Arrazista eta atsekabetua, ezinezko amodio istorio batek eta jasandako tragediak gorrotoz betetako gizon bihurtu dute. Pertsonaiaren izaera istoriora proiektatzen da, eta, horrela, eszenek eta filmaren atmosferak intentsitate berezia hartzen dute. John Waynen interpretazioa izugarria da. Haren tankerak, begirada

itzelak eta ahots boteretsuak ia beldurra ematen badute ere, aktoreak badaki pertsonaiaren sufrimendua islatzen.

The Searchers-ek odisea eta amesgaiztoen kutsua hartzen du. Bidaiariak, etengabe, norabide finkorik gabe alde paisaia izugarriak zeharkatzen. Istorioaren ukitu tragikoa nabarmena izan arren, komediak ere bere tartetxoak ditu. *The Searchers* eszena zoragarriaz beterik dago: filmaren hasiera bikaina, Ethan Edwards zaldian bere ilobaren atzetik, bukaerako azkeneko planoak... Fordek lortu zuen betiko iraungo zuen filma egitea.

ANTONIO ZABALA



goiena

2012-07-13

BUKATZEKO

Alzheimerraren kontra, lapitza eta papera

- ▶ Mari Carmen Lopezi alzheimerraren lehenengo sintomak antzeman zizkioten duela sei urte
- ▶ Gaztetako bizipenen inguruko idatzia aurkeztu du narrazio lehiaketa batera, eta bigarren geratu da

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

70 urte ditu eta duela sei urte alzheimerraren lehenengo sintomak atzeman zizkioten. Horrek, baina, ez zuen Mari Carmen Lopezi kikildu. "Nire gaixotasuna onartuta daukat, badakit ez duela sendabiderik eta asko zaindu behar naizela", azaldu digu.

Gaixotasuna diagnostikatu ziotenetik tratamenduan dago eta burua erne eta esna mantentzea da haren helburu nagusia. Idaztea da hori lortzeko topatu duen bideetako bat, eta orain, egindako esfortzua ordainsaria jaso du.

Leioako Udalak antolatzen duen *Ni Gaztea Nintzanean* narrazio lehiaketara aurkeztu da aurtan, eta 56 urtetik gorakoen kategorian bigarren saria lortu du.

'Recuperar mi juventud'

Segoviako Melque de Cercos herrian jaio zen Mari Carmen Lopezi, baina gaztetan Arrasatera etorri zen bizi izatera. *Recuperar mi juventud* da lehiaketara aurkeztutako idatziari ipini dion izenburua, eta, hain justu, horixe da egiten duena, bere gaztetako oroitzapenak eta bizipenak berreskuratu: "Nire bizitzaren gaineko gorabeherak kontatzen



Lopez, sariaren egiaztagiriarekin eta aurkeztutako idatziarekin. | A. TXINTXURRETA

ditu. Nire bizitza ez da batera erraza izan, lan asko egin behar izan dut. Aita 48 urterekin hil zen eta ni 9 anai-arrebaren artean nagusia nintzen". Bada, anai-arrebak entretenitzeko kontatzen zizkien ipuinak ere aipatzen ditu bi orriko idatzian.

Otxandio, inspirazio iturri

Otxandioko zaharren egoitzan zegoela hasi zen Lopez idazle lanetan: "Beti gustatu izan zait idaztea, baina Otxandion egon nintzanean ohean ordu asko pasatu behar nituen, alabari esan nion koaderno txiki bat

erosteko. Balkoia zabaldu eta jendea aurrera eta atzera ikusten nuen. Oso giro atsegina zen eta idazten hasi nintzen. Horrelaxe bete nituen bi orriak".

Biloba txikien laguntza

Aretxabaletako egoitzan dago egun, eta, egoitzan bertan ipintzen dizkioten ariketez gain, bilobek ere lan handia ematen diote burua erne mantentzeko: "Bi bilobek eskolako etxeko lanak ekartzen dizkirate askotan, eta sudokuak ere bai. Eta, jakina, horrek asko poztzen nau".

Hurrengora begira

Jaso berri duen sariak motibatuz egin du, eta idazten jarraituko duela esan digu. Are gehiago, dagoeneko pentsatuta dauka hurrengo ipuinaren gaia: "Nire jaioterriaren inguruan idatziko dut. Segoviako herri txiki batean jaio nintzen, baina nik handi bilakatu dut. 40-60 etxebizitza ditu, baina nik idatziko dut 250 dituela".

Bizi izaten ari den esperientziarekin, bere egoera berean daudenei esan nahi die oso garrantzitsua dela norbera aktibo eta bizi mantentzea, eta baita burua ere.

AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE



Nirekin edo nire etsai

Gipuzkoako Batzar Nagusietako historia guztian, lehenengo aldiz, diputatu bati zentsura mozioa aurkeztu zaio. Arrazoa, Gipuzkoako hondakinen kudeaketari irtenbiderik ez emateaz gain, gipuzkoar guztiontzat sekulako arazoa sortu duela. Bilduk egun hauetan darabilen argumetu bakarra EAJ-PSE-PPk bere aurkako frontea sortu dutela Legegintzaldia-aren hasieratik. Atzean behin betiko utzi beharreko garai politikoetan bezala, alderdi hauetako bozeramaileen irudiak erabiliz, kartelak ipini dituzte Gipuzkoa osoan. Diana besterik ez zaie falta aurpegi hauei garai ilun haiek gogora ekartzeko. Bilduk fiskalitateari buruzko proposamenak PSErekin aurrera atera ditu, PPren babesarekin Gipuzkoako errepide guztietan peaje eta zerga berriak ipini nahi ditu. Non dago, beraz, hiru alderdien frontea? Fronte hori egia balitz, Martin Garitano ez zen sekula diputatu nagusia izango eta Donostiako alkatetzara ere ez zen Bilduren eskuetan egongo. Gogora dezagun EAJk ahalbideratu zuela hori guztia. Honen aurrean, Bilduk hartu duen erabakia hauxe izan da: nirekin edo nire etsai. Mesede egiten al dio honek garai politiko berriari?

Amagara
Erdiko kalea 54 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

Depilazioa edertasun tratamendua ere badelako...

- Depilazioa argizariarekin:
 - Hankak.
 - Besapeak.
 - Bizkarra.
 - Besoak.
 - Goiko ezpaina.
- Depilazio elektrikoa.
- Laser depilazioa.

Eta ondo sentitzeko...

- Gorputz-masajea
- Aurpegi-masajea
- Aurpegi-garbiketa
- Pedikura-manikura
- Mikropigmentazioa:
 - Bekainak.
 - Begiak
 - Ezpainak
- Solariuma...